2014-IX-14
XII. urtea. 3.485 zenbakia
1,80€

# berria Igandea



# Ehundu dute galdeketa

Independente izan nahi duten edo ez galdetuko die Eskoziak herritarrei ostegunean, Londresen onespenarekin. Baietzaren eta ezetzaren arteko alde estua iragartzen dute inkestek.

2

## EAJ-Sortu

*EAJ eta ezker abertzalearen arteko harremanak zailak izan dira historikoki. Elkar ulertzeko lanean dira berriz*

10

## Futbola

*Bartzelonak menpean hartu du Athletic, 2 eta 0 irabazita. Realak berriz, bina egin du Celtaren kontra*

30-32

## Flamenkoa

*Gero eta zale gehiago ditu flamenkoak Euskal Herrian; errezeloak gainditu dira, eta sortzaileak ugaritzen ari dira*

Nasan • 37

## Iñaki Alkiza

*Realak eta politikak jarri zuten plaza publikoan, eta, erretiratuta ere, ez ditu albora uzteko ak*

Elkarrizketa • 54

**GAUR** gehigarria









Eskozia
I-18: Independentziari buruzko erreferenduma






**Milaka orangistak ezezko botoa eskatu zuten atzo Edinburgoko desfilean, baina *Better Together* kanpainak ez zion babesik eman, kontrako eragina izan zezakeelako.** ANDY RAIN / EFE

# ERABAKITZEKO ORDUA IRITSI DA

Edinburgo urduri dago haileko bigarren asteburuan. Lau egun baino ez dira falta independentziari buruzko erreferendumerako, eta, nahiz eta Alex Salmonden gobernuak «belaunaldian behineko aukera» dela dioen, eskoziarrek badakite: orain da bozkatzeko garaia.

**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

Baretasun harrigarriz dator Eskoziaren historiako erabaki garrantzitsuenetakoa. Kalean hauteskunde giroa nabari da: hainbat leihotan Yes dioten kartel urdinak daude eskegita, eta kale-argietan zintzilik daude oraindik boto erregistroan izena emateko eskatzen duten kartelak. Tarteka autoren bat pasatzen da, bozgorailutik jendeari independentziaren alde bozkatzeko eskatuz; erdialdeko kale jendetsuetan, boluntarioek banatzen dituzte esku orriak. Herritar gehienak ohiko bideetan doaz presaka; *sit in* etan bazkaltzen dute, edo *take away*-etatik eramaten dituzte ogitartekoak, ostiralarekin gauza handirik aldatuko ez balitz bezala. Haietako gehienek, ordea, izena emana dute osteguneko erreferendumean parte hartzeko: Hauteskunde Batzordeak inoizko erregistro kopuru handiena zenbatu du. 4,2 milioi eskoziarrek galdera bakarrari erantzun beharko diote irailaren 18an: «Eskoziak herrialde independentea izan behar al luke?».

Baiezkoaren aldeko kanpainek indar guztiak ipini dituzte bi urteko maratoiaren azken zati honetan. *Yes Scotland* kanpaina ofizialak Edinburgo erdialdean daukan egoitzatik dozenaka kaxa material ateratzen dituzte egunero kalean banatzeko. Han dago Dan Paris, SNP Eskoziako Alderdi Nazionaleko kidea: «Inkestak estutuz doaz; batzuetan baten alde egiten dute, eta besteetan, bestearen alde; beraz, bozketa egunera arte ezin izango dugu jakin zer aterako den. Baina suma daiteke hilabeteotan independentziaren aldera mugitu dela balantza. Konfiantza eta baikortasuna nabari da, batez ere gazteen artean».

Horretarako arrazoi bat izan daiteke independentziaren aldeko kanpaina ugari sortu direla, SNPk bultzatutako ofizialetik harago; besteak beste, Alderdi Berdeak, Alderdi Sozialistak eta RIC Independentzia Erradikalaren aldeko Kanpainak babestu dute *Yes Scotland*. Horiei esker, SNPri urrun geratu ohi zaion publiko

# Galdera bakarra izango da: Eskoziak herrialde independentea izan behar al luke?

mota batengana heltzeko gaitasuna dute: politika konbentzionalarekin zapuztutakoengana. «Frustrazio handia dago Westminsterrekin», azaldu du Parisek: «Hemen edozer bozkatzen dugula ere, Erresuma Batuko herritarren %9 baino ez gara; beraz, ezin dugu hango emaitzetan eragin». Erreferendumak hainbat sektoretan fedea berpiztu duela uste du: «Bozketa honetan, berdin balio dute Edinburgoko boto batek, Glasgowko batek eta Highlandsetako batek. Jendeak ulertzen du horren garrantzia».

Leith etorbideko bidegurutze batean, Tim Fraser-Granados gaztea ari da Parisek emandako esku orriak banatzen. Ziur da baiezkoak irabaziko duela: «2011ko hauteskundeetan ere hala izan zen: inkestek hamar punturen aldea ematen zieten laboristei, eta, azkenean, SNPk botoen %60 lortu zituen». Askorentzat, erabakigarria da asteotan gertatzen dena. «Galdera ugari egiten dizkigute gai ekonomikoen inguruan: nola mantenduko dugun libera esterlina, gobernuak pentsioei eutsiko ote dien, energia kontuak... Eta guk esaten diegu Londresko *tory*-ek Margaret Thatcherren 1980ko hamarkadako politika berberak egiten dituztela eta, hain zuzen ere, pentsioak salbatzeko modu bakarra baiezkoaren alde bozkatzea dela».

Edinburgo erdialdean, Princes Street jendetsuan, alaiagoa dirudia. Gurdi batetik musika ozen ipinita, buruhandiz jantzitako bi lagun ari dira dantzan: Alistair Darling laboristaren eta George Osborne Ogasun ministro kontserbadorearen aurpegiak daramatzate. Inguruan, beste hiru gazte kartoizko letra larri banarekin dantzan: Y-S-E; E-Y-S; eta, azkenik, Y-E-S. Oinezkoek irribarre egiten diete; turistak argazkiak ateratzeko gelditzen dira. National Collective taldeko ekintzaileak dira: independentziaren aldeko sortzaile talde bat. «Aspertuta geunden telebistan beti politikari serio eta trajedunak ikusten», dio kolektiboko kide Andrew Barrek. «Prozesu hau askoz dibertigarriagoa izan zitekeela erakutsi nahi genuen».

Kulturan eta artean diharduten gazteek osatzen dute nagusiki National Collective. «Edinburgo beti izan da kontserbadore eta ipurterre samarra, baina orain haren alde errebeldea ikusten ari gara. Sorkuntza prozesu baten antza du: jendeak bere buruari galdetzen dio zer garen eta zer izan nahi dugun,eta konfiantza handiagoa dauka zer egin nahi duen erabakitzeko».

### Badaezpada, elkartuta

Bestelakoa da egoera *Better Together* (Hobeto elkarrekin) kanpainaren Glasgowko bulegoan. Hark alde ditu Londresko alderdi nagusiak eta hedadura zabaleneko komunikabideak, eta bulegoa telefonoz ari diren boluntarioz beteta dago, baina *Yes Scotland*-ek baino askoz presentzia txikiagoa du kalean. «Ez da gure estiloa», dio Michael Marra kanpainako estrategak: «Erresuma Batuaren parte izatea oinarrizko elementua da eskoziar askoren bizitzan, eta ondo pentsatu beharreko erabakia da. Badakigu *Yes*-ekoak kanpaina gogobero eta pasioz betea egiten ari direla. Haien aldean, gure jendea askoz arrazionalagoa eta analitikoagoa da».

Hala ere, zailagoa da zerbaiten aurkako kanpaina egitea, zerbaiten aldekoa baino: «*Yes* eta *No*. Hitzek bakarrik adierazten dute konnotazio bat, eta ez da erraza ezezkoa zerbait positiboa dela adieraztea». Horregatik, independentziak dakartzan arriskuak nabarmentzea da *Better Together* kanpainaren estrategiaren zutabeetako bat. «Eskoziarako proiektu politikorik ez proposatzea leporatzen digute, baina hori alderdien zeregina da, eta gure kanpaina alderdi askok osatzen dute». Nagusiak alderdi kontserbadorea, laborista eta liberal demokrata dira; askorentzat, ordea, nabarmena da Londresen eskua kanpainaren mezuetan. «Baiezkoaren kanpainaren eragile nagusia SNP da, eta hark erabakitako ildoari jarraitzen diote, gutxi-asko, gainerako taldeek».

> **«Frustrazio handia dago Londresekin; hemen edozer bozkatuta ere, ezin dugu eragin hango emaitzetan»**
>
> **Dan Paris**
> 'Yes Scotland' kanpainako kidea

> **«Galdera ez da ea Eskoziak nazio gisa iraun ote dezakeen, baizik eta zer den onena eskoziarrentzat»**
>
> **Michael Marra**
> 'Better Together'-eko kidea

Hasieran, *Yes Scotland*-en eskariak ukatzea zen *Better Together*-en estrategia. Denborarekin, ordea, bi kanpainetako aldarrikapenak, polarizatu ordez, elkarrengana gerturatu dira. Kontrakoek ere Eskoziarentzako eskumen gehiago eskaini dituzte azkenerako, David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroaren ahotik. «Eskumen asko dauzkagu jada», azaldu du Marrak: «Hezkuntza guk bakarrik kontrolatzen dugu; parlamentua eduki dugu hamabost urteotan... Beraz, galdera ez da ea Eskoziak nazio gisa iraun ote dezakeen, baizik eta zer den hobea Eskoziarentzat. Eta baietz bozkatzea arrisku handiegia hartzea da».

### Etorkinen garrantzia

Nazio identitateari buruzko galderek apenas duten lekurik kanpaina batean zein bestean, are gutxiago bertako hizkuntza gutxituek. Eztabaida, batez ere, gizarte ereduaren eta ongizatearen ingurukoa da. «Nazionalismo etniko batek ez luke funtzionatuko hemen», dio Parisek: «Eskozian, jende gehienak du familian migranteren bat. Horren ordez, diskurtso inklusiboagoa daukagu».

Kanpaina independentista babesten duten alderdiak, oro har, unionistak baino ezkertiarragoak dira. Eta etorkinen artean babes handia lortzea espero dute. «Hemen ez dago han behean [Ingalaterran] dagoen xenofobiarik», azaldu du Graham Campbell Africans for Independence (Independentziaren aldeko afrikarrak) taldeko kideak: «Londresek atzerritarren aurkako legeak onartu dituen bakoitzean, Eskoziako gobernua izan da erantzun dion bakarra: kanpoko ikasleentzako bisak mantendu ditu, eta, Londres asilo eskaerak ukatzen eta haur migratzaileak atxilotzen hasi zenean, Eskoziako Parlamentu osoak hitz egin zuen haren aurka».

Inkestetatik ezin ondoriozta daiteke nork hartuko duen aurrea osteguneko bozketan. Argi samar dago, ordea, eskoziar gehienek parte hartuko dutela. Ez baitira hauteskunde arruntak. Ez daude boterea banatuko duten lau edo bost alderdi: irabazle bat eta galtzaile bat egongo dira. «Emaitza edozein dela ere, ostiral goizalderako erdibitutako herrialde bat izango dugu», dio Parisek: «Erdiek baten alde egingo dute; beste erdiek, bestearen alde. Eta, hortik aurrera, asmatu egin beharko dugu herrialde gisa jarraitzen».

---

**GAKOAK**

**IRAILAK 18, OSTEGUNA**
Datorren ostegunean egingo dute Eskoziaren independentziari buruzko erreferenduma. Emaitza biharamunean jakinaraziko dute.

**4,2**

**BOTO-EMAILEAK**
4,2 milioi pertsonak eman dute izena erreferendumean parte hartzeko, eskubidea dutenen %97k. Eskozian bizi direnek ez ezik, han jaio eta Erresuma Batutik kanpo bizi direnek ere eman dezakete botoa, baina Erresuma Batuko beste lekuetan bizi diren 800.000 eskoziarrek ezin izango dute parte hartu; Erresuma Batukoak izanik Eskozian bizi diren 400.000k, ordea, bai

**16**

**GUTXIENEKO ADINA**
16 urtetik gorakoek parte har dezakete erreferendumean.

**%50+1**

**BEHARREZKO BOTOAK**
Ez da behar gutxieneko parte hartzerik: emaitza indarrean sar dadin, nahikoa da botoen erdiak baino gehiago biltzea

**ONDORENA**

**ZER GERTATUKO DA ERREFERENDUMAREN OSTEAN?**
**Baiezkoak irabazten badu:** Eskoziak 18 hilabeteko epea izango luke estatu berriaren oinarriak negoziatzeko: Erresuma Batuarekin, Europako Batasunarekin, Nazio Batuen Erakundearekin... Oraingo gobernuaren asmoa da independentzia 2016ko martxoaren 24an aldarrikatzea
**Ezezkoak irabazten badu:** Londresek Eskoziako Legebiltzarrari agindu dio eskumen gehiago emango dizkiola herritarrek Erresuma Batuan jarraitzea erabakitzen badute

---

**Eskozia**
I-18: Independentziari buruzko erreferenduma

**INKESTEN BILAKAERA**




ITURRIA: YOUGOV



**Gizon bat Eskoziako gaita jotzen, Londresko Big Benen aurrean.** FAO INDO ARRIZABALAGA / EFE

Erresuma Batuan argi dago nor den 'Scottish', nor 'English' eta nor 'Welsh'. Horregatik, Eskoziako mugimendu abertzaleak beste ildo bati eutsi dio bere burua definitzeko: Londresko boterearen aurka.

# Independentismo eskoziarra ulertzen

**Bamara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

Independentista izan edo ez, Eskozian guztiek diote eskoziarrak direla, eta oso gutxik daukate euren burua britainiartzat. Beste hainbeste gertatzen da Ingalaterran ingelesekin, eta Galesen galestarrekin. Inork ez die esaten beste zerbait direnik, eta, beraz, ez dute euren nazio izaera justifikatzeko beharrik sentitzen. Horregatik, Eskoziako indepen dentismoaren diskurtso nagusiaren oinarria ez dago argudio kultural edo historikoetan. Eskoziarrak definitzen dituena ez da hainbeste batzen dituena, baizik eta mugaz hegoaldera bizi direnengandik bereizten dituena. Eskoziar politikan eta nazionalismoan aditu Michael Keatingen ustez, Ingalaterrako agintearen eta ideologia nagusiaren aurka definitzen du bere burua eskoziar nazionalismoak: «Antagonismoak, nolabait, ingelesen dominazioaren menpeko batasun politikoa du jomugan». SNP Eskoziako Alderdi Nazionalak sarri erabili du estrategia hori eskailera politikoan gora egiteko. Horregatik, egungo eskoziar abertzaletasunaren diskurtso nagusia ulertzeko, baliagarria izan daiteke Eskoziak Londreselkin izan duen harremana aztertzea.

Eskoziako mugimendu independentista I. Mundu Gerraren inguruan hasi zen gaur egun duen itxura hartzen. Aurretik, eskoziarrek Britainiar Inperioaren hainbat boteregune kontrolatzen zituzten; armadaren zati handi batean, esaterako, eskoziarrek agintzen zuten, eta kolonietako ordezkari gehienak ere bertakoak ziren. Murray Pittockek *The Road to Independence? Scotland in the Balance* (Independentziarako bidea? Eskozia balantzan) liburuan aipatzen duenez, 1914 baino lehenago potentzia ekonomiko sendoa zen Eskozia, eta, proportzioan, Erresuma Batuak baino produkzio handiagoa zeukan. Gerra Handiak lur jota utzi zuen herrialdea; gazte asko ez ziren bizirik itzuli, eta milioi erdi bat lagunek Ingalaterrara, AEBetara edo Kanadara jo zuten lan bila.

Hain zuzen ere, Glasgow inguruko auzo industrialetako langile mugimenduek heldu zioten garai hartan diskurtso independentistari. SNP 1934an sortu zen, nahasketa politiko bitxi batetik: alde batetik, laborismo autonomistatik eta independentismo erradikaletik zetozen sektore batzuk elkartu ziren; bestetik, prozesu osoaz jabetzen utzi nahi ez zieten eskuindar nazionalista batzuk.

II. Mundu Gerraren ostean, «etenik gabe desegiten» hasi zen Britainiar Inperioa. Londresek Washingtoni utzi zion munduko potentzien podiumean zeukan lekua, eta, trukean, Erresuma Batua berreraikitzeko laguntzak jaso zituen. «Kapitalismo britainiarraren *urrezko garaia* izan zen», dio Robin McAlpine analista politikoak *Eskozia, independentziaru bidaia XXI. mendeko Europan* liburuan (Independentistak sareak Euskal Herrian 2013an argitaratua): «Erruz heldu zen inbertsio publikoa, osasun sistema publikoa sortu zuten, kalitate handiko milioika udal etxebizitza eraiki zituzten, energia eta trena nazionalizatu zituzten...».

Baina goraldi hura igarota, 1970eko eta 80ko hamarkadetako krisiak ailegatu ziren. Langabeziak gora egin zuen, eta grebaz eta protestaz bete zen Erresuma Batu osoa, batez ere altzairugintzan, paperginizan eta meatzaritzan. Orduantxe finkatu zen SNP Erresuma Batuko instituzio politiko nagusietan; 1967an sartu zen behin betiko Londresko parlamentuan, eta 1974ko hauteskundeetan inoizko babes handiena lortu zuen: Eskoziako botoen %30,1.

### 'Burdinazko dama'

1970eko hamarkadaren amaieran kontserbadoreak itzuli ziren Londresko gobernura, eta, haiekin, gaurdaino eskoziarren frustrazio eta amorruaren eragile eta objektu izan den lehen ministroa: Margaret Thatcher. «Beharbada, gaur egun Eskozian erlijio nazionalaren antz handiena duena Thatcherri dioten gorrotoa da», dio McAlpinek. «Thatcherrek irudikatzen du Eskoziako nazio

# Eskozia

## I-18: Independentziari buruzko erreferenduma

nortasunak bere burua definitzeko aurkitu zuen etsaia. Irudikatzen du Eskoziak bere interesak estatu britainiarrarekin bat zihoazela sinesteari utzi zion unea».

Londresek gupidarik gabe pribatizatzen zituen industriak eta zerbitzuak, Poliziak gogor zapaltzen zituen langileen manifestazioak, eta sindikatuek etengabeko gatazka zuten elkarren artean. Garai hartan Eskoziako ontziola nagusiak itxi zituzten, eta Ingalaterran eta Galesen baino lehenago ezarri zuten han *poll tax* zerga polemikoa.

Erresuma Batuaren historiari buruzko diskurtso ofizialak dio

**1980etako krisiaren eta langile mugimenduen garaian finkatu zen SNP Erresuma Batuko instituzio politiko nagusietan**

**McAlpineren hitzetan, Eskozian erlijio nazional modukorik badago hori Thatcherri dioten gorrotoa da**

**Diskurtso independentista erradikalari heldu beharrean, bertsio leunago baten alde egin du SNPk azken urteotan**

Thatcherren murrizketa neurriek, gutxienez, lortu zutela inflazioa jaistea eta ekonomia egonkortzea. Eskoziako bertsioek beste faktore bat aipatzen dute: kontserbadoreak agintera itzuli aurreko urteetan petrolioa topatu zuten Ipar Itsasoan, eta Thatcherren gobernuak atera zion probetxu. Etekinak politika neoliberalek eragindako gabeziak estaltzeko erabili zituela dio McAlpinek: «Industria eta sindikatuak eraisteko baliabidea izan zen petrolioa, energia sektoreko beste arlo batzuetako greba garestiak konpentsatzeko erabili baitzuen, batez ere ikatz meatzarien 1984ko greba handia».

Baliabide haren zati handiena Eskoziako uretan zegoen. Glasgown eta Edinburgon manifestazio jendetsuak egin zituzten *It's Scotland's oil* (Eskoziaren petrolioa da) lelopean, baina Londresko gobernuak etengabe gutxiesten zuen baliabide haren garrantzia. Estrategia horrek gaurdaino iraun du; izan ere, erreferendumerako kanpainan eztabaida handiena sortu duten gaietako bat horixe izan da: Ipar Itsasoko petrolioak zer balio daukan, eta zein neurritan sostenga dezakeen Eskozia independentearen ekonomia. Londresek beti esan du SNPk dioen baino gutxiago dela, eta horrek menpekotasun ekonomikorako beldurra iltzatu du herritar askoren buruan.

Thatcherren nagusikeriak eta petrolioaren auziak agerian utzi zuten Eskoziaren autonomia falta, eta indartu egin zen abertzaleen artean aspalditik hazten ari zen aldarri bat: bertan legebiltzarra ezartzea. Londresek hainbat eskumen Edinburgoren esku utz zitzan. Thatcher agintera heldu aurretik ere egina zuten horretarako saio bat: 1979ko martxoaren 1ean egin zuten *devolution* (itzultzea) prozesuari buruzko herri galdeketa. Botoa eman zutenen artetik, %51k baietz bozkatu zuten, baina egitasmoa ez zen aurrera atera; izan ere, horretarako beharrezkoa zen baiezko botoak errolda osoaren %40 izatea, eta 240.000 boto falta ziren. Beraz, erreferenduma irabazi arren, Eskoziak ez zuen legebiltzarrik lortu.

Thatcherren agintaldi luzeak areagotu egin zuen frustrazioa. Ia hamabi urte iraun zuen: eskoziar gehienek ez zuten sekula Alderdi Kontserbadorearen alde bozkatzen eta, hala ere, gobernuan ikusten zuten urtez urte. Joera horrek iraun egin du: gaur egun, Eskoziako ordezkari bakarra du alderdi horrek Westminsterreko parlamentuan.

Garai hark arrasto sakona utzi zuen Eskoziako mugimendu abertzalean. Alde batetik, Londrestik ahalik eta autonomia handienarekin funtzionatzeko helburua jarri zion bere buruari, eta legebiltzarraren aldekoek aurrea hartu zieten independentistei. Bestetik, agenda soziala lehenesten hasi zen, Europa iparraldeko herrialdeak eredutzat hartuta. Hortik dator, esaterako, SNPk Ipar Itsasoko petrolioarekin egin asmo duena: Londresen antzera pribatizatu eta etekinak uneko arazoak estaltzeko erabili ordez, Norvegiaren eredua imitatzea proposatu du. Herrialde horretan, estatua da petrolio enpresa handienaren jabe nagusia, eta pentsio funts nazional batean inbertitzen ditu bertatik lortutako etekinak. Funts horrek 600.000 milioi euro inguru balio ditu orain: Europako handiena da, eta Munduko Bankuak ere hara jotzen du kredituak eskatzeko.

### Laboristen aroa

Kontserbadoreen boterea behera etorri zen 1990eko hamarkadan, eta laboristak itzuli ziren agintera. Haiek ere indartuta atera ziren Thatcherren garaitik, eta horrek beste erronka bat ekarri zion SNPri: langile mugimendua kon




Winnie Ewig dipulatuarekin finkatu zen SNP Westminsterren. «Gelditu mundua, Eskoziak igo nahi du» zen haren leloa. BERRIA




Thatcherren gobernuak ezarritako zergen aurkako protestak. SSP




Eskoziako legebiltzarraren aldeko manifestazioa. BERRIA




«Ez da harritzekoa barre egitea. Eskoziaren petrolioa dauka». S ARCHIVE

bentzitu beharra zeukan alderdi nazionalista baten alde bozkatzeko, eta ez Erresuma Batuko baten alde; eta, hori guztia, kontuan hartuta laboristek ere euren agendan sartua zutela Eskoziako legebiltzarraren auzia. Garai hartan, SNPk bere sektore kritikoenei traizio ere egin zien noiz edo noiz. Westminsterren kontserbadoreekin batera bozkatu baitzuen laboristen aurka.

1997an, Eskozian eta Galesen berriro legebiltzarrak ezartzeko erreferenduma baimendu zuen Tony Blairren gobernuak. Horren inguruan hainbat bertsio daude: batzuek diote eskoziar nazionalisten lorpena izan zela; besteek, hain justu haiek gelditzeko erdi bideko irtenbide bat proposatu zuela Londresek. Nolanahi ere, bigarren ahaleginean baiezkoak irabazi zuen; 1999an egin zituzten hauteskundeak, eta harrezkero martxan da egungo parlamentua.

Ordutik, Erresuma Batuko Gobernua baino zertxobait aurrerakoiago izaten saiatu izan da SNP. Londresen agintzen zuen alderdia edozein izanik ere, jarrera antzekoa hartu du: oro har, Londresko politikekin ezkontzeko modukoa, baina beti hura baino ezkerrerago, distantzia zuhurra mantenduz. Besteak beste, Irakeko gerraren eta arma nuklearren aurka agertu da, eta bere esku meneko hainbat zerbitzu publiko defendatu ditu. Unibertsitatea, esaterako, doakoa da Eskoziako ikasleentzat; Ingalaterran, aldiz, batez beste 10.000 euroko prezioa dute matrikulek.

2007an Eskoziako parlamenturako hauteskundeak irabazi zituen SNPk, eta gutxiengoan gobernatu zuen. 2011n, kontserbadoreen eremuak ez ezik, laboristenak ere eskuratu zituen, eta gehiengo osoz agintzen du ordutik. McAlpineren ustez, Alderdi Berdearen eta SSPko sozialisten laguntzak eragin nabarmena izan du horretan: «Haiekin, ezker-ezkerrekoen botoak eskuratu zituen [SNPk], hura zelako haientzat gobernu laborista zigortzeko aukera errealista bakarra».

Hala ere, badituzte oraindik gatazkak. Diskurtso independentista erradikalari heldu beharrean, bertsio leunago baten alde egin du SNPk azken urteotan, eta «Erresuma Batuaren barruko independentzia» proposatu du: monarkia eta libera esterlina, esaterako, mantendu nahi ditu. Azken urteotako krisi ekonomikoak izan dezake horretan eraginik: Irlandari eta Islandiari behatuta, eskoziarrek ikasia zuten lezioa. Euroaren krisiarekin, gainera, ez zirudien unerik onena «Europaren barruko Eskozia independentea» aldarrikatzeko. Ordutik, gatazka nagusia independentziarekin eraiki nahi duten gizartesistemaren ingurukoa da: batzuek, Europako iparraldean bilatzen dituzte ereduak; beste batzuen ustez, argiagoa da aldaketak gutxienak izatea, eta Londresen politika neoliberalekin bateragarria den eredu bat bilatzea. Horregatik, ezkerreko hainbat alderdi txiki eta herri mugimenduk Radical Independence Campaign sortu dute, gobernuari malgutasunaren marra gorria non dagoen seinalatzeko. Erreferenduma irabazita ez baita ezer bukatuko.

**Eskozia**
I-18: Independentziari buruzko erreferenduma

# «Ederki damutuko zaio Londresi erreferenduma onartu izana»

## David McDonald • SNPren zinegotzia Glasgown

Bi urteko kanpainaren azken ahaleginetan buru belarri dabil David McDonald (Glasgow, 1983), Glasgowko Udaleko zinegotzia: «Badakit ez dudala inoiz hau baino gauza handiagorik egingo».


SAMARA VELTE

**Samara Velte** *Glasgow*
*Berriemaile berezia*

Hasieran erraza zen Glasgowko kanpaina independentista koordinatzea, «sei edo zazpi kide bakarrik» zituenean. Denborarekin, baina, dozenaka boluntario eta lantalde sortu dira, eta kanpainak David McDonaldek imajina zitzakeen dimentsio guztiak gainditu ditu: «Aspaldi utzi zion alderdi bakarrekoa izateri. Orain, SNPko kideak ditugu, laboristak, sozialistak, berdeak, eta baita herritar arruntak ere. Oso pozgarria da inplikazio maila hori ikustea; izan ere, Eskozian langile klaseek galdua zuten fedea politikan. Glasgown, hauteskundeetako parte hartzea %30 izan ohi da, baina, oraingoan, %97k eman dute izena bozkatzeko».

**Glasgow oso kasu berezia da, erreferendum osoa baldintza dezakeelako.**

Eskoziako hiri handiena da, eta ziurrenik hemen irabaziko edo galduko dugu erreferenduma. Ezkerreko mugimendu erradikalen historia handia ere badu hiri honek, eta, nire ustez, baiezkoa irtengo da; izan ere, sekula politikan sartu ez den jendea mobilizatu du kanpaina honek. Herritarrek gaiari buruz hitz egiten dute kalean, lagunekin... Halako elkarrizketez beteta dago hiria.

**Zein mezu helarazi diezue langile klaseei?**

Nagusia da guk aukeratutako gobernua nahi dugula. Glasgowk laboristen alde bozkatu du azken 60 urteotan, baina erdietan kontserbadoreak egon dira agintean [Londresen], eta hemengo industria guztia suntsitu dute. Garai batean, hemeretzi ontziola geneuzkan, eta 100.000 lagunek lan egiten zuten bertan; gaur egun, enpresa bakarra dago, eta 10.000 lagun eskas dauzka kontratatuta. Jendeak badaki kontserbadoreen politikek kalte egiten diotela Glasgowri, horregatik esaten diegu ez dituztela gehiago jasan behar baietz bozkatzen badute.

**Baina Alderdi Laboristako korronte nagusia ere independentziaren aurka agertu da.**

Zoritxarrez, laboristak euren etsai historikoen alboan jarri dira. Hori oso deserosoa da haien ohiko boto-emaileentzat, Glasgowri hainbeste kalte ekarri dieten horiexen eskutik helduta ikusten dituztelako. Sektore batek nahiago luke alderdia tradizio ezkertiarragora itzuliko balitz.

**Zeu ere tradizio laboristako familia batetik zatoz. Desilusioa hartu zenuen?**

Eskola utzi nuen urtean zabaldu zuten Eskoziako Parlamentua, 1999an. Politika, bat-batean, garrantzitsuagoa bihurtu zen, goizetik gauera instituzio hura geneukalako. Garai hartan, zailtasun handiak neuzkan Londresko gobernuko laboristekin adiskidetzeko; izan ere, Irakeko gerrarako bidean geunden, eta gobernua asilo eskean zetozen pertsonak atxilotzen hasi zen. SNP politika haien aurka agertu zen garai hartan.

**«Eskoziako hiri handiena da Glasgow, eta ziurrenik hemen irabaziko edo galduko dugu erreferenduma»**

**«Lehen, jendeak ez zuen uste Eskozia aberatsa zenik. Bi urte hauek ondo etorri zaizkigu mezu batzuk helarazteko»**

**Orain, Londresko alderdi nagusiek —laboristek eta kontserbadoreek— botere gehiago eskaini dizkiete eskoziarrei, independentziaren aurka bozkatzen badute.**

Gauza bera esan zuten 1979ko erreferendumean, eta lortu genuen gauza bakarra Margaret Thatcher izan zen, eta hark Eskoziako industria guztia suntsitu zuen. Ez diot hitz erdirik sinesten Londresi: eskumen gehiago emango dizkigula hitzematen digu, eta zehazteko eskatzen diogunean, erantzuna da: «Tira, bide orri bat eskaintzen dugu eskumen gehiago ematen joateko». Baina hori 2015eko hauteskundeen ostean izatea nahi dute, eta hori ikusi beharko da Ingalaterran zer ateratzen den; UKIP ere [Erresuma Batuaren Independentziaren Aldeko Alderdia] hor dago... Askoz arrisku handiagoa du orain independentziaren aurka bozkatzeak.

**Zer gertatuko da ostegunean?**

Emaitza edozein dela ere, gure historiako mugimendu politiko handiena izango da. Glasgown baiezkoak irabaziko duela uste dut. Merezi dugu, gainera: gure kanpaina izan da Eskoziarentzako proiektu bat proposatu duen bakarra.

**Denbora gehiago edukiz gero baiezkoak aiseago irabaziko lukeela uste duzu?**

Ez dakit. Egia da bi urte hauek ondo etorri zaizkigula mezu batzuk helarazteko. Lehen, jendeak ez zuen uste Eskozia herrialde aberatsa zenik; petrolioaz hitz egiten zuten, baina ez zituzten kontuan hartzen beste baliabide batzuk: sektore zientifikoa, elikagaien eta edarien industria, sektore kreatiboa... Bi urteotan hori aldatu da: lehen, «independente izan gaitezke» esaten genuen; gero, «independente izan behar genuke», eta, orain, «independente izan behar dugu» esaten dugu.

**Independentziarako proposamenak gehiegi leuntzea leporatu izan dizuete; esate baterako, NATOri eta monarkiari eutsita.**

Ohartu gara badirela jendearentzat garrantzitsuak diren hainbat elementu: erregina, libera mantentzea, «batasun soziala» [Ingalaterrako senide eta lagunekin dituzten aliantzak]... Herritarrek balio handia ematen diete gauza horiei. Erregina, azken batean, 50 herrialde baino gehiagotako estatuburua da, besteak beste, Australia eta Kanadakoa; eta liberari eustea interesgarria da guretzat. Gure aurkariek diote zati onenak mantendu eta txarrak aldatu nahi ditugula, baina ez al da hori mundu guztiak egiten duena zerbait hobetu nahi duenean?

**Zer iritzi daukazu Erresuma Batuko Gobernuak kanpaina honetan guztian hartu duen rolaren inguruan?**

Inoizko kanpainarik negatiboena izan da. Hedabideetan atera da banku eta enpresa handiek Londresera alde egingo dutela. Ez dute aipatzen Royal Bank of Scotlandek esan duela lanposturik ez duela mugituko, ez eta banku horren akziodun nagusia Erresuma Batuko Gobernua dela ere. Duela urte batzuk hondoa jo zuten bankuak dira, azkenean diru publikoz berreraiki zituztenak; beraz, nork egiten die presio?

Horrez gain, badakigu lehen ministroak hainbat herrialderekin hitz egin duela Eskoziaren independentziari buruzko komentario txarrak egiteko, baina harrigarria da zeinen erantzun gutxi jaso dituen.

**Eskoziako erreferendumari beste herrialde batzuetako autodeterminazio eskariei baino legitimitate handiagoa ematen diotela iruditzen zaizu?**

Kasu desberdinak dira. Euskal herritarrok eta katalanek autodeterminazio eskubidea ukatzen dizueten gobernu bat daukazue Madrilen; hemen, aldiz, Londresek onartu behar izan zuen SNPk gehiengo osoa lortu zuela parlamentuan —hain zuzen ere, gehiengo osorik ez lortzeko diseinatutako instituzio batean—. Uste zuten ez ginela gai izango erreferenduma aurrera ateratzeko.

**Londresek desberdin jokatuko zukeen, baldin eta jakin izan balu Yes Scotlandek hainbesteko babesa lortuko zuela?**

Erreferenduma onartzea erabaki zuten uste zutelako ezezkoak irabaziko zuela. Kataluniaren aurkakoa da: han, Madrilek badaki galdu egingo duela; hemen, erreferenduma egin eta kontuaz ahaztu nahi zuten. Baina gogor lan egin dugu, eta pentsatzen dut Erresuma Batuko Gobernua aste honetan ederki damutuko dela erreferendumera deitu izanaz.

**Samara Velte** *Glasgow*
*Berriemaile berezia*

Pare bat urteotan, Eskoziaren independentziaren aldeko dozenaka talde txiki sortu dira kanpaina ofizialaren itzalpean. Haien artean ezagunenetakoa RIC da, Independentzia Erradikalaren Aldeko Kanpaina.

# Baimenik gabeko independentzia

Badakizue zertarako nahi dugun independentzia? *Tory*-ak behingoz ederki izorratzeko». Boterean dauden alderdiez trufatu eta aho bizarrik gabe mintzo dira. *Yes Scotland* kanpaina babestu arren, SNP Eskoziako Alderdi Nazionaletik urruntzen ahalegintzen da Radical Independence Campaign; horrek, alde batetik, diskurtso nagusiari kritika egitea ahalbidetzen dio, eta, bestetik, *Yes Scotland* ek baino tonu eta forma probokatzaileagoak erabiltzea. «Independentziaren ostean bi gobernu *tory* egongo direla esaten dute: handi bat Londresen, eta txiki bat Edinburgon», azaldu du Donny Gluckstein kanpainako kideak: «Bost axola. Hala izanda ere, Erresuma Batua hautsita egongo da, eta hori asko da».

Baina itxurazko arinkeria horren atzean badute mezua: *Beste Eskozia bat posible da* dute lelo nagusia. Ostiral iluntzean, ekitaldi internazionalista bat egin zuten Glasgown; han izan ziren, besteak beste, Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako eta Palestinako ordezkariak. «Baiezkoaren aldeko mugimenduaren helburuak ez du zerikusirik eskoziarra izatearekin, eta are gutxiago SNPrekin eta Salmondekin. Aldaketarako berezko nahia da», azaldu zuen Jonathon Shafi RICeko kideak. «Ezezkoaren kanpaina, apurka, funtsik gabe geratzen ari da. Nazkatuta gaude haiek gezurretan ikusteaz. 1979ko erreferendumean ere, orain darabiltzaten mehatxu berberak erabili zituzten: ohartarazi zuten kapital galera egongo zela, eta gero, baiezko botoak ez zirenean aski izan, langabezia maila handiena izan genuen».

Eskoziako espektro politikoaren ezkerreko muturraren inguruan zebiltzan hainbat taldetxo eta norbanako bildu ditu RICek. Parlamentuko alderdi nagusiak heltzen ez diren zokoetara ailegatzea dute helburu. «Badakigu independentziarekin ez dela dena goitik behera aldatuko. Haren ostean ere egongo dira komunitate behartsuak. Baina irailaren 18a aukera bat da; arrakala txiki bat, hainbeste zoritxar sortu duen sistema honetan».

### Inkesta alternatiboak

Atez ateko kanpaina egiten aritu dira hilabeteotan. Horietan, hiri handietako langile auzoetara joaten dira, eta, hango herritarrei iritzia galdetuz, estatistikak ateratzen dituzte. «Inkesta ofizialek ez dute kontuan hartzen sektore horren zati handi bat», azaldu du Pat Smith koordinatzaileak: «Botoa ematen ez dutenez, hautes kunde erregistrotik kanpo egon dira luzaroan». Oraingoan desberdina izango da: boto eskubidea dutenetatik %97k eman dute izena osteguneko bozketan parte hartzeko. Boto emaile berri asko Londresko gobernuarekin zapuztutako langile auzoetakoak dira, eta RICek horiek konbentzitu nahi ditu. Pauta sinplea da: atea jo, eta botoa erabaki duten edo ez galdetu. Zalantzan daudela erantzuten badute, zerotik hamarrerako eskala batean baloratzeko eskatzen diete: zero ezezko botoa da, eta hamar, independentziaren aldekoa. «Hasieratik ezetz bozkatuko dutela esaten badute, apuntatu eta ospa egiten dugu», azaldu du Smithek: «Ez du merezi garai honetan kontrakoak konbentzitzen hastea».

Aspaldion aski sakabanatuta egondako ezkerreko hainbat sektore elkartzeko balio izan du kanpainak. Langile klaseak ditu jomugan, baina ezkerreko elite intelektualek gidatzen dute nagusiki. «Aterki handi bat da RIC», azaldu du Glucksteinek. Edinburgh Collegeko irakaslea da, baina boluntario gisa dihardu atez ateko kanpainan. «Hainbat alderdi eta taldetatik datozen pertsonak biltzen ditu; erreferendum egunera arte ongi moldatuko gara, hori delako helburua, eta gero ikusiko dugu».

Independentziaren aldeko kanpainan talde periferikoa da RIC, baina helburua ostegunetik harago jarri dute. Glucksteinen ustez, Eskoziako ezker muturrari berriz forma emateko balioko du kanpainak: «Eskozia independentea izango bada, SNP baino ezkerrerago dagoen alternatiba bat beharko da. Ez da erraza izango, badakigulako nolakoa den ezkerra, baina hala gertatu behar du. Izan ere, Salmondek agindu ko badu Eskozian, hainbat politika sozial eutsiko die, baina merkatuen mesedetan jardungo du batez ere».

**«Baiezkoaren aldeko mugimenduak ez du zerikusirik SNPrekin; aldaketarako berezko nahia da»**
**Jonathon Shafi**
RICeko kidea

**«Inkesta ofizialek ez dute kontuan hartzen langile auzoetako herritarren sektore handi bat»**
**Pat Smith**
RICeko tokiko koordinatzailea

**«Eskozia independente izango bada, SNP baino ezkerrerago dagoen alternatiba bat beharko dugu»**
**Donny Gluckstein**
RICeko boluntarioa




**Parodiak eta musika emanaldiak tartekatu zituen RICek ostiraleko ekitaldi internazionalistan; argazkiko dantzariek Margaret Thatcherren eta David Cameronen maskarak daramatzate.** BERRIA



«Jendea berriz bere botereaz jabetzen ari da; hori du onena prozesu honek»

**Lloyd Quinan**
Parlamentari ohia

**S. Velte** *Edinburgo*

Independentzia Erradikalaren Aldeko Kanpainako kideek Craigmillar auzoko bulego txiki batetik hartzen dituzte atez ate banatzeko esku orriak. Lloyd Quinan parlamentari ohia dabil guztia koordinatzen. SNPko eta Alderdi Sozialistako kide ohia da, baina biekin dago zapuztuta. Ongi ezagutzen du Euskal Herriko politika –bulegoa presoen aldeko ikurrez beteta dauka–, eta sarri egiten ditu konparaketak: «Espainia eta Ingalaterra inperio izandakoak dira. Jendea harrapatu eta ideologikoki desarmatzeko diseinatuta daude».

**SNPko parlamentaria izan zinen 1999tik 2003ra. Zergatik utzi zenuen?**
Kostatu zitzaidan alderdia uztea, baina alderdiak zu uzten zaituenean... Mekanikoegia bihurtu zen, makina bat bezala; hori, berez, gauza ona da, baina alderdiaren barruko funtzionamenduari eragin zion. Duela hogei urte, alderdi aktibista zen: kideek bileretara joan behar zuten, eta egitura bat zegoen, herrietako taldeetatik hasi eta batzar nazionaletaraino. Erabaki guztiak mailaz maila hartzen ziren. Orain orritxo bat jasotzen duzu postaz, gurutze txiki bat egiten diozu, eta zure hautagaia aukeratzen duzu. Alderdi burokratiko bihurtu da. SNPk, urte luzez, oso arreta mediatiko gutxi izan du; baina, parlamentura heldu ginenean, gutako batzuen aurpegiak telebistan agertzen hasi ziren. Eta alderdi bateko militanteak aktiboak ez badira, horixe gertatzen da: telebistan gehien ateratzen denak jasotzen duela boto gehien.

**Horrek eragin al dio alderdiaren diskurtsoari?**
Nire ustez, bai. Hasieran beldur izan nintzen SNP ez ote zen EAJ moduko bat bihurtuko: agintearí eustearren botere mugatuekin konformatutako alderdi bat. Baina SNPren barruko sektore batek ez luke sekula halakorik onartuko, eta etengabe bultzatu du independentziaren aldeko diskurtsoa. Alderdia agintera heldu zenean, ezin izan zuen EAJk bezala sektore aurrerakoiena baretu.

**Jende asko al dago desados SNPren independentziarako proposamenarekin?**
Oraingoz, axola gutxi du horrek. Independente bihurtuz gero, hurrengo hauteskundeak 2016an izango dira. Tarte hori daukagu taldeak eta proposamen berriak antolatzeko; ez derrigor alderdi politikoak, baina bai herritarrek euren burua ordezkatzeko sortutako mugimenduak.

**Uste duzu erreferente politiko berriak sor litezkeela independentziaren aldeko kanpaina egiten ari diren ezkerreko taldeetatik?**
RICi buruz ari bazara: RIC Eskoziako Alderdi Sozialistaren (SSP) eta beste talde marxistaren baten hondarretatik jaiotako taldea da. SSP oso alderdi txikia da: 2004an sei parlamentari zituen, baina egun ez dauka ia ordezkaritzarik erakundeetan. *Yes Scotland* kanpainaren parte da, baina sinesgarritasun guztia galdu du. Alderdi Berdeak garrantzi handixeagoa du, baina hark ere badu independentziaren aurka dagoen sektore bat, eta erdiko klasekoen alderdi bat da. Horiek guztiek ez diete erantzuten herritarren arazoei: etxebizitza, ekonomia, drogak... Horietaz nor arduratuko den, hori da hemen kezka. Erresuma Batuko Gobernuak gizarte ongizatean moztu eta murriztu du, eta, horrela, propio utzi du hainbat auzotan ekonomia beltza hedatzen: aukerarik ez duten hainbat gazte langabezian daude, eta drogak salduz lortzen dute dirua.

**Orduan, zein da prozesu honen alde onena?**
Jendea bere botereaz jabetzen ari dela berriro. Besteak beste, galdera bakarra egingo dietelako: zuk niri galdera bat egiten badidazu, boteretsu sentitzen naiz, nire iritziak benetan balio duela sumatzen dut. Galdera bat eta hamar erantzun posibleren artean aukeratzeko ematen badidazu, boterea nire eskuetatik kentzen ari zara. Orain sortu den energiari eusteko modu bakarra galderaren mekanismo horri eustea da. Ez da soilik *Bai* independentziari: jendea jabetzearen aldeko botoa da.

**ANALISIA**
Martxelo Otamendi



# Karta jokoa

Argitaratzen ez diren inkestek argi gorriak piztuko zituzten nonbait, azken egunotan estrategia aldaketa adierazgarri bat baino gehiago ikusten ari garelako.

Askotan aipatu izan dugu Eskoziako erreferenduma eredugarria dela, fondoan eta formetan. Westminsterreko Legebiltzarraren eta Londresko gobernuaren adostasunarekin egin zelako, ados jartzeko negoziazioak azkar eta modu atseginean joan zirelako, epeak errespetatu direlako eta Londresen esku hartze onartezinik egon ez delako.

Horrek, ordea, ez zuen esan nahi bi aldeak geldirik egongo zirenik. Bistan denez, Erresuma Batuko lehen ministro Cameron ez dago ados independentziarekin, eta, hasieran kanpainan parte hartze ahula eduki zuen bezala, osteguna hurbildu ahala gero eta presentzia handiagoa dauka, uste zutena baino ahulago ari direlako O egunera iristen. Jakina da oso harrera txarra daukatela kontserbadoreek Eskozian, Glasgowko langileen artean batik bat; eta horregatik ez da asko agertu Eskoziatik Londresko burua, Bai aukeraren kanpainari kalte egin ziezaiokeelako. Luzea bezain kaltegarria da Margaret Thatcherren itzala, urte asko pasatuta ere. Estrategia aldatu, arriskua hartu eta ostegunera bitartean gehiago inplikatuko da Cameron kanpainan. Argitaratzen ez diren inkestetan egon liteke erantzuna.

Ustez neutral geratu behar zuen beste bat ere agertu da jokalekura: Ingalaterrako erregina Isabel II.a. Lau haizeetara zabaldu zuten bere ingurukoek, baita gobernuko bozeramaileek ere, ez zuela parterik hartuko eztabaidan eta ez zuela publikoki ezer esango. Logikak dio Isabel II.a ezezkoaren aldekoa dela, nahiz itxura gordetzearren ezer ez esan oraintsu arte. Igandean, Eskozian bertan, udako egoitzarako erabiltzen duen Balmoral gaztelutik gertu, ordura arteko jarrera urratu eta oso modu elegantean, argian ere bai, ezezkoaren alde agertu zen: «Espero dut jendeak etorkizunari buruz kontu handiarekin pentsatzea». Ezin garbiago adierazi zer nahi duen ostegunerako.

*Prozesu elegantea da Eskoziakoa; bakoitzak bere kartak jokatzen ditu, eta, Eskozia ez gainontzeko Erresuma Batuan, askoz tapete gehiago dago Eskozia berdean baino. Karta gehiago, 'zelebriti' gehiago*

Duela aste batzuk, Mick Jagger kantaria buru zutela, berrehun *zelebriti* britainiarrek, horiek ere sekulako errespetuarekin, agiri bat kaleratu zuten hiru puntu nagusirekin: Eskoziaren etorkizuna eskoziarrei bakarrik zegokiela erabakitzea; hartutako erabakia errespetatu egin beharko zela; eta sinatzaileek uste zutela etorkizun hobea edukiko zutela denek elkarrekin segituz gero. Alegia, ezezkoa bozkatzeko, baina horren gordin esan gabe. Dena oso *polite* (errespetuzkoa), eta oso polita.

Azkena agertzen David Beckham futbol jokalari ohia izan da, hura ere kezkatuta baiezkoak irabazten badu.

Prozesu elegantea da Eskoziakoa; bakoitzak bere kartak jokatzen ditu, eta, Eskozia ez gainontzeko Erresuma Batuan, askoz tapete gehiago dago Eskozia berdean baino. Karta gehiago, *zelebriti* gehiago.

Inor gehiago falta al da ezezkoaren alde agertzeko?

UEMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA
UEMAn euskara teknikari lan poltsa osatzeko deialdia
Oinarriak: www.uema.org webgunean
Izena emateko azken eguna: irailak 23
Informazio gehiago: 943816699 / 946279195

ERROTA
HORTZ KLINIKA
ZURE AHO OSASUNAREN ZAINTZAILEAK
Julian Apraiz, 1
01012 GASTEIZ
Tel.: 945 21 33 90
errotadental@euskalnet.net

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
KOBRANTZA IRAGARKIA
UDAL JABARIA AULKIZ ETA MAHAIZ OKUPATZEAREN 2014KO TASA
Zergadun eta Donostiako tokiko zergak kobratzeaz interesatuko guztiei jakinarazten diegu abuztuaren 11ean eta azaroaren 28an kontu korronteetara bidaliko ditugula UDAL JABARIA AULKIZ ETA MAHAIZ OKUPATZEAREN 2014ko ekitaldiko TASAren ordainagiriak.
Donostian, 2014ko uztailaren 30ean.–
Diruzaina-Finantza Zuzendaria.–
Oscar Villasante Arbelaiz

Zumaiako Udala
IRAGARKIA
ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BOSGARREN ALDAKETA, 02 HA-SAN TELMO AUZOKO 2.1 EU-ARI DAGOKIONAREN BEHIN BETIKO ONARPENA. 2014KO UZTAILAREN 23KO OSOKO UDALBATZAN HARTUTAKO ERABAKIA
LEHENA: Zumaiako Udalak sustatu eta Ramon Uribe-Echebarriak eta Jose Francisco Arta Ezanek idatzitako Zumaiako Arau Subsidiarioen bosgarren Aldaketa, 02 HA-San Telmo Auzoko 2.1 EU-ari dagokionari behin betiko onarpena ematea.
BIGARRENA: Onartutako dokumentua Foru Aldundiko Hirigintzako Plangintzaren Erregistro Administratibora eta Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordera bidaltzea eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.
Zumaia, 2014ko irailaren 8a.
ALKATEA
Iñaki Agirrezabalaga Alkorta




*Better Together* kanpainaren ardatz nagusia da Eskoziako Alderdi Laborista. ANDY RAIN / EFE

Erreferendumerako kanpainan, independentziaren aurka lerratu da Eskoziako Alderdi Laborista, betidanik etsai izan dituen kontserbadoreekin batera. Londresen oposizioan egonik ere, Eskozian «Londresen ahotsa» ordezkatzen du orain.

# Tony Blairren oinordekoak

**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriarentzat berezia*

Erresuma Batuko Alderdi Kontserbadorea aspaldi geratu zen Eskoziako joko zelaitik kanpo: Margaret Thatcherrekin puntu guztiak galdu zituen, eta haren ondorengoak ez dira askorik arduratu berriro jokoan sartzeaz, aski baitzaizkie Ingalaterra hegoaldeko botoak Londresen gobernatzeko. Alta, Eskoziako independentziari buruzko erreferendumerako kanpaina ailegatu denean, Alderdi Laborista bihurtu da Londresen ordezkari. Auziak arrakala sakona eragin du urte luzez Eskoziako alderdi nagusi izandakoaren barruan.

Laboristei ez zaie gustatzen «Londresen ahotsa» ordezkatzen dutela entzutea. «Eskoziako Alderdi Laboristak bere eskumenak ditu, Galeskoak eta Ipar Irlandakoak dituzten bezala», azaldu du Sarah Boyack parlamentariak: «Geure burua ez daukagu Londresko alderditzat». Ulertzekoa da bien arteko lotura saihestu nahi izatea; izan ere, Westminsterren Alderdi Kontserbadoreak agintzen du, laboristen betiko etsaiak. Baina *Better Together* kanpainaren buru jarri ta, ezinbestean Londresko gobernuaren iritzia ordezkatu dute laboristek azkenerako, eskoziarren begietan. David Cameron lehen ministroak ez zuen alferrik auke ratu oposizioko kide bat telebistako debateetan Alex Salmonden aurka eztabaidatzeko.

### Arriskuen kanpaina

Tradizio autonomista du Eskoziako Alderdi Laboristak. XX. mendean langile klaseen erreferente nagusia izan zen, eta, hori esker, aise irabazten zituen hauteskundeak Glasgow inguruan. 1997an, Londresko gobernura ere laboristak heldu zirenean, Eskozian parlamentua ezartzeko erreferendumera deitu zuten. «Modu instrumentalean sortu genuen», azaldu du Boyackek: «Hauteskundeak irabazi eta hiru hilabetera egin genuen galdeketa. 1999rako, parlamentua geneukan. Oso harro gaude instituzio horretaz, baina ez zaigu gustatzen oraingo gobernu nazionalistak nola darabiltzan haren eskumenak».

Tony Blairrekin eta Irakeko gerrarekin, alderdi laboristaren gainbehera ailegatu zen; Londresko gobernua ez ezik, Edinburgoko parlamenturako hauteskundeak ere galdu zituen. 2011n, Eskozia hegoaldeko langile komunitate askok SNP Eskoziako Alderdi Nazionalaren alde egin zuten, eta hark gehiengo osoa lortu zuen. Alex Salmond lehen ministroak erreferendumera deitu ko zuela iragartzean, laboristek kontrako bandoa hartu zuten.

Eskozia independente bateko gobernura heltzeko aukera tentagarria ote zaion galdetuta, burua astindu du Boyackek: «Erresuma Batuaren barruan egonda, elkartasun ekonomiko handia jasotzen dugu, eta hori garrantzitsuegia da uko egiteko. Oraintxe, Ingalaterrako Bankuaren erabakietan eta Erresuma Batuko politika ekonomikoetan eragiten dugu. Banatzen bagara, egingo dugun lehenbiziko gauza da haiengana korrika joatea, haiekin dirua eta finantzak parteka ote ditzakegun galdetzera».

Alderdi Kontserbadorearekin eta liberal demokratarekin hiruko osatuta, laboristek botere gehiago agindu dizkiete eskoziarrei Londresen izenean. «Ironikoki, gure proposamenak azkarrago ekarriko du aldaketa Eskoziara. Guk prest dugu programa, eta, 2015ean Erresuma Batuko hauteskundeak irabaziz gero, segituan sartuko da indarrean. SNPk hemezortzi hilabeteko epea jarri dio bere buruari negoziatzeko, baina urteak beharko ditu dena martxan jartzeko».



**«Erresuma Batuaren barruan jasotzen dugun elkartasun ekonomikoa garrantzitsuegia da uko egiteko»**

**«Banatzen bagara, korrika joango gara Ingalaterrako Bankura, dirua parteka ote dezakegun galdetzera»**

**Sarah Boyack**
Alderdi Laboristako parlamentaria

Independentzia ez babesteko arrazoietako bat hortxe dago: Holyroodeko bozak ez ezik, Westminsterrekoak ere badituzte buruan laboristek. Eta, Eskozia independente bihurtuz gero, eragin handia galduko lukete Londresen. Gaur egun, Eskoziako laboristek 41 parlamentari dituzte Westminsterren; kontserbadoreek, bakarra. Mugaz hegoaldera, balantzak beste aldera egiten du nabarmen, *tory*-en mesedetan. Horregatik, alderdiak Galesko eta Ingalaterrako laboristekiko «elkartasuna» ere eskatu du kanpainan: «Ospa egitea ez da sekula izan, eta ezin liteke izan, elkartasunaren oinarria».

### Arrakala bat alderdian

2011ko hauteskundeetan bezalaxe, SNPk laboristen boto-emaileetan ipini du arreta biharko erreferenduma irabazteko, eta *Yes Scotland* kanpainarekin bat egiteko eskatu die. Boyacken arabera, alderdiko militantziaren zati handienak zuzendaritzaren jarrerari eutsiko dio, eta independentziaren aurka bozkatuko du. Baina boto-emaile asko baiezkora igaro daitezke.

*Labour for Independence* (Independentziaren aldeko laboristak) kanpainaren arabera, alderdiko kideen %30 inguru daude independentziaren alde. Nagusiki alderdiko kargudun ohiek eta afiliatu gabeko boto-emaileek osatzen dute. «Alderdiko zuzendaritzak bere kabuz erabaki zuen *tory*-ekin bat egitea *Better Together*-en, oinarriko kideei galdetu gabe. Gure ustez, auzi hau garrantzitsuegia da modu ez-demokratikoan, goitik behera, erabakitzeko». Allan Grogan kanpainako buruaren arabera, huts berbera egin dute *Yes Scotland* ek eta *Better Together*-ek: independentziaren aldeko botoa SNPrentzat eta Salmondentzat dela ulertaraztea.

Boyacken ustez, arrakala horrek ez du eragin handirik izan oraindik alderdian, baina, ostiraletik aurrera, pentsatzekoa da alderdi guztiek jarrera desberdina hartzea. «Emaitza edozein dela ere, Eskozia beste leku bat izango da. Nahiko ziur nago ezezkoak irabaziko duela. Hala bada, gu ez gara alderdi sektarioa izango, eta ongi hartuko ditugu besteak». Eta baiezkoa bada? «Eskoziako Alderdi Laborista izango gara gerora ere, eta presio egingo diogu Eskoziako Gobernuari, neurri sozialagoak har ditzan. Kasu horretan ere, inguruko herrialdeetara lotuta egongo gara, eta aliantzak osatu beharko dira».


SAMARA VELTE

# «Gai asko propio saihestu dituzte»

**Stephen Boyd** • STUC Eskoziako Sindikatuen Zentraleko kidea

Independentziak epe laburrean izango duen eragin ekonomikoak kezkatzen du Stephen Boyd sindikalista: «Hasieran urte gogorrak izango dira, eta ez dakit jendea horretarako prestatu duten».

**S. Velte** *Glasgow*
*Berriemaile berezia*

Duela urtebete galdetuz gero, erreferendumean «baiezko indartsu samarra» emango lukeela dio Stephen Boydek (Glasgow, 1968). «Orain, zalantzek ez didate lo egiten uzten». STUC Eskoziako Sindikatuen Zentraleko kidea eta Jimmy Reid fundazioko ekonomia gaietarako arduraduna da. Lehenak Eskoziako langile mugimenduak bildu eta ordezkatzea du helburu; bigarrenak, etorkizuneko Eskoziarako proposamen aurrerakoiak egitea.

**Zerk kentzen dizu loa?**

Asko kezkatzen nau independentziak epe laburrean izan dezakeen eragin ekonomikoak. Nahiko bortitza izango delakoan nago: austeritate neurri gogorrak onartu beharko ditugu, gutxienez bost edo hamar urtez. Hori ondo legoke jendeak ulertu eta onartuko balu, eta prest balego sufrimenduzko epe hori jasateko, epe luzeko onuren mesedetan. Baina hori ez da jendeari saldu dioten argazkia: Eskozia berehala herrialde aberatsagoa izango dela esan diote.

**SNP inprobisatzen ari dela iruditzen zaizu?**

Erabat. Ezagutzen ditut SNPko aholkulari batzuk, eta oso pertsona argiak dira, baina gai askotaz ez dute sekula pentsatu orain arte; besteak beste, neurri makroekonomikoek nola eragingo luketen maila apalean. SNPk libera mantendu nahi du, *koesterlintzazio* gisako bat proposatu du, baina ez dut uste herritarrak prestatu dituztenik horren ondorioei aurre egiteko. Dirua beste batekin partekatzen duzunean, independentzia aldarrikatzen duzu, baina beste herrialdean gertatzen denaren menpekoa zara erabat. Halako gaiei buruz ez dute sekula eztabaidatu orain arte. Duela bi urte Eskoziarako diru independente bat proposatu izan balute, hasieran akaso boto batzuk galduko zituzten, baina epe luzean mesede egingo zion kanpainari.

**Zein jarrera izan du STUCek erreferendumerako kanpainan?**

Erakundea ez dago politikoki afiliatuta, nahiz eta hainbat kide Alderdi Laboristakoak diren. Kanpainan, jarrera neutrala hartu dugu; baina ez zait gustatzen hitz hori erabiltzea, izan ere, hainbat gairi buruz iritzi sendoa daukagu. Oso kritiko izan gara bi kanpainekin, fokua justizia soziala izan zedin nahi genuelako.

**Ase dituzte zuen espektatibak?**

Ez; hainbat alderditatik begiratuta, nahiko etsigarria izan da. Egia da herritarren %97k eman dutela izena erreferendumean parte hartzeko, eta inplikazio politikoa hazi da. Baina eztabaidak ez die arretarik eman guretzako benetan garrantzitsuak diren gaiei; areago, asko propio saihestu ditu. Zergen auzia, adibidez: badakigu ezezkoaren kanpainak ez duela gizarte gaietan sakondu nahi, eta *Yes Scotland*-ek dioen bakarra da herrialde nordikoetako adibideei jarraitu nahi diela, baina ez du aipatzen nola lortu nahi duen hori. Jakina, guztiok nahi dugu Suedian edo Danimarkan bezala bizi, baina bi herrialdeotan guk baino %12 edo %20 gehiago ordaintzen dute zergetan. Ezin dugu halakorik eskatu, haren truke ordaintzeko prest ez bagaude.

**Azken urteotan botorik eman ez duten langile komunitateak erabakigarriak izan daitezke erreferendumean. Zer espero dute talde horiek independentziatik?**

Ziurrenik, erreferendum honen testuinguruak eragin handia izango du. Erresuma Batuko Gobernuaren politika eskuindarren ondorioak sumatzen ari gara: finantza krisiari aurre egiteko, austeritate neurri zorrotzak erabili ditu. Bistan da jendea sufritzen ari dela: laguntzak moztu dituzte, zerga gehigarriak ezarri... Enplegua zertxobait igo dela diote, baina lan merkatuari gertutik begiratzen badiozu, ohartuko zara benetan hazi direnak kalitate eskaseko lanpostuak izan direla, soldata apalak eta ordu gutxiko lanaldiak dituztenak. Beraz, jendeak ez du benetan sentitzen egoera ekonomikoa bere onera itzultzen ari denik.

**«Apustu egin beharko banu, ezezkoaren alde jokatuko nuke. Baina ez nintzateke harrituko baiezkoa irtenda»**

Epe luzera, esango nuke Eskoziako ekonomia ez dela sekula 1970eko eta 1980ko hamarkadetatik osatu; kontserbadoreen eta Margaret Thatcherren agintean galera handia izan genuen hemengo ekoizpenean. Ekonomia suspertu da harrezkero, baina ez garai hartako industriak ordezkatzeko bezainbeste. Hori baino gehiago, polarizatu egin da: soldata handiak eta txikiak dituztenen arteko aldea nabarmenagoa da orain. Beraz, argudio horrek ziurrenik indar handia izango du langile klaseak konbentzitzerakoan.

**Urte luzez, Alderdi Laborista izan da langile klasearentzako erreferente nagusia. Hori aldatu da?**

Erresuma Batuko hauteskundeetan, laborista da oraindik Eskoziako alderdi nagusia. Baina Eskoziako Parlamenturako bozetan desberdina da: azkenengoetan, SNPk oso emaitza onak lortu zituen, hainbat eskualdetan boto laboristak eskuratu zituelako. Horrek jendearen frustrazioa islatzen du: ez zaie gustatzen ekonomia nola aldatu den globalizazioaren garaian. Beharbada, Eskozia mailan, aiseago bozkatzen dute beste zerbaiten alde, pentsatuz laboristekiko alternatiba ekarriko duela, haiek ez dietelako Eskoziaren arazoei erreparatzen.

**Oker daudela uste duzu?**

Bietarik dagoela uste dut. Laboristek batzuetan merezi dituzte kritika horiek; besteak beste, ez dutelako asmatu *devolution*-en osteko autonomia behar bezala kudeatzen. Baina hori ezin da muturrera eraman: ez da bidezkoa Eskoziako Alderdi Laboristari egoztea Erresuma Batuko Alderdi Laboristak egiten duen guztiaren errua. Gainera, Erresuma Batu osorako interesgarriak diren proposamenak ere egiten dituzte.

**Beharbada, beste alderdi batek bete dezake hutsune hori. Baiezkoaren alde lerratutako batek, akaso.**

Ostegunean baiezkoa ateratzen bada, laboristak behartuta egongo dira Erresuma Batuko kideetatik aldendu eta Eskoziarako diskurtso ezkertiarrago bat garatzera. Gainerakoan, ez dut uste haien tokia bete dezakeen alderdi finkaturik daukagunik hemen. Alderdi Berdea irabazten aterako litzateke prozesu honetatik, baina ez da aski indartsua, eta nahiko elitista da. Laboristek Irakeko gerra babestu zutenean, parlamentari dezente lortu zituzten halako alderdiek, baina ezagutzen dugu ezker muturra, banatzeko joera dauka, eta konferentzia batean mila pertsona ikusten dituenean, mundua aldatzen ari dela pentsatzen du; nahiz eta beti mila lagun berberak diren. Egia da sektore batzuek ikusgarritasuna irabazi dutela kanpaina honekin, baina kostako zaie hortik mugimendu politiko iraunkor bat sortzea. Baiezkoak irabazten badu, ziurrenik SNPk jarraituko du alderdi nagusi, eta pare bat legegintzaldiren ostean banatu egingo da, sektore eskuindar eta ezkertiarrago baten artean.

**Zer gertatuko da bihar?**

Zaila da esatea, oso estu dagoelako kontua. Ezkerreko zirkuluotan aise ondoriozta liteke baiezkoak irabaziko duela, baina neure buruari gogorarazi behar diot etengabe nire lagunak ez direla preseski Eskoziako gizartearen errepresentazio zehatzena. Beraz, apustua egin beharko banu, ezezkoaren alde jokatuko nuke, baina ez nintzateke harrituko baiezkoak irabaziko balu.

# Unerik indartsuenean doa 'Yes Scotland' bozketara

Bi urteko kanpaina amaituta, iritsi da Eskoziaren independentziari buruzko erreferenduma • Goizeko zazpietan zabalduko dituzte botoa emateko guneak, eta emaitza bihar goizerako jakingo da • Inkestek alde estua iragartzen dute



**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

«2014ko irailaren 18an, goizeko zazpietatik gaueko hamarretara, Eskoziako herritarrak erabateko botere subiranoaren jabe izango dira. Haiek erabaki beharko dute hari eutsi nahi dioten edo uko egin nahi dioten gutxiengo izaten jarraitzeko, betirako hauskor eta botererik gabe». Horrela deskribatu zuen Jim Sillars politikari beteranoak eskoziarren sentipena gaurko egunari begira. Eta, azkenean, ailegatu da: eskoziarrek gaur bozkatuko dute Erresuma Batutik bereizi nahi duten edo ez.

Galdera bakarra da: «Eskoziak herrialde independentea izan behar al luke?».

Ziurtasuna edo zalantza gailenduko den, hori da gakoa: *Yes Scotland* kanpainak independentziaren onurez konbentzitu nahi izan ditu herritarrak, hainbat auzi oraindik airean dauden arren; *Better Together* unionistak independentziaren ustezko arriskuak nabarmendu ditu, eta trukean are promesa lausoagoak egin ditu Londresko gobernuaren izenean.

Ez da eskoziarren lehenbiziko erreferenduma: duela hamazazpi urte ere deitu zituzten botoa ematera, parlamentua ezarri edo ez erabaki zezaten. Gaurkoa, baina, haratago doa. Indar subiranistek parlamentua instituzio garrantzitsutzat jotzen duten arren, susmoz beteriko bozketak izan dira aurrekoak: beti leporatu izan diete Londresko alderdi nagusiei parlamentua euren mesedetan erabiltzea, mugimendu independentistak apaltzeko mekanismo gisa. Propio jarri zuten gehiengo osorik ez lortzeko moduko boto sistema bat; hala ere, SNP Eskoziako Alderdi Nazionalak lortu zuen 2011n, eta independentziari buruzko erreferenduma egitea agindu zuen. Handik hiru urtera, bete du hitza. «Inoizko ahalduntze ariketa handiena izango da milioika eskoziarrentzat», esan du Alex Salmond lehen ministroak kanpaina amaierako mezuan: «Eskozia betiko aldatu da. Ez diezaiogun aukera horri ihes egiten utzi».

## Estutzen, estutzen

Bi urte luze iraun du kanpainak, eta, haren itzalpean, independentziaren aldeko herri mugimendu indartsua eratu da. Babes apalarekin abiatu zuten *Yes Scotland*: ozta-ozta iristen zen herritarren herenera, are gutxiago Glasgow eta Edinburgon. Denbora alde izan dute, ordea: hilabeteotan, estutuz joan da bi aukeren arteko aldea, eta, gaurdaino, ezin aurreikus liteke ezer inkesktei behatuta. ICM etxeak herenegun argitaratutakoaren arabera, zalantzatiak alde batera utzita, baiezkoak botoen %48 lortuko lituzke, eta ezezkoak, %52. Zalantzatiak kontuan hartuz gero, tartea are estuagoa da.

Erresuma Batuko Gobernuak erreferenduma onartu zuenean, nekez irudika zezakeen hainbeste estutuko zela lehia: David Cameron lehen ministroak patxadaz jakinarazi zuen auzia eskoziarrena zela eta haien esku utziko zuela. Orain, amaitu zaio sosegua. Botoemaileak konbentzitzeko keinu desesperatutzat jo dituzten hainbat erreakzio erakutsi dituzte unionistek egunotan, bereziki Londrestik. Asteartean Aberdeenen izan zen Cameron: eskoziarrek alde eginez gero «bihotza



**«Inoizko ahalduntze ariketa handiena izango da milioika herritarrentzat. Eskozia betiko aldatu da»**

**Alex Salmond**
Eskoziako lehen ministroa (SNP)

hautsiko» ziotela esan zuen prentsaurrean, eta «dibortzio mingarria» izango litzatekeela. «Ez banauzue atsegin, ez naiz hemen betiko egongo. Ez bazaizue gobernu hau gustatzen, ez da betiko izango. Baina Erresuma Batutik irteten bazarete, hori betiko izango da, bai».

Londresko gobernuak nekez eragingo du errukirik urte luzez baztertuta sentitu den herrialdean: Cameronen maitasun adierazpenak beranduegi datoz. Kontserbadoreek ez, Alderdi Laboristaren mezuek eragiten dute zalantza gehiago: urte luzez Eskoziako alderdi nagusia izan da, eta, gehiengoa galdu arren, eragin handia dauka Glasgow inguruko langile auzoetan.

Horiek dira emaitza erabaki dezaketenak. Hauteskundeetako parte hartzea oso txikia izan ohi den arren, oraingoan herritarren %97k eman dute izena; eta zalantzatiei mintzatu zaizkie kanpaina amaierako mezuetan. «Ez dago protesta botoentzako lekurik», esan du Blair McDougallek, kanpaina unionistako zuzendariak: «Erresuma Batua uztea bozkatzen badugu, ez dago atzera bueltarik, horrek murrizketa handiagoak, prezio handiagoak eta lanpostu apalagoak ekarriko ere».

Bando independentistan, ekitaldi jendetsuak egin zituzten atzo *Yes Scotland*-ek eta Independentzia Erradikalaren aldeko Kanpainak. «Aurkariak erabat nahastuta daude. Eskoziako Parlamentuarentzako botere gehiago agindu dituzte, baina azken orduko zirriborro baten itxura du», esan zuen Glasgown Dennis Canavan *Yes Scotland*-eko zuzendariak: «Ez diete ziria sartuko Eskoziako herritarrei. Modu bakarra dago parlamentuari botere gehiago emateko: baietz bozkatzea».

## ESKOZIA URTEZ URTE

**1314.** Eskoziako independentziaren lehen gerran (1296-1328), Roberto I.ak Eduardo II.a errege ingelesa garaitu zuen Bannockburneko guduan.
**1603.** Eskoziako James VI.a Britainiar Uharteetako errege bihurtu zen, *James I* izenarekin. Urte horretan elkartu ziren Eskoziako koroa eta Ingalaterrakoa.
**1707.** Batasunaren Legea: Eskoziak eta Ingalaterrak bat egin zuten politikoki.
**XX. mende hasiera:** Mundu gerretako krisien testuinguruan, Eskoziako mugimendu independentista ernatzen eta sendotzen hasi zen.
**1934.** SNP Eskoziako Alderdi Nazionala sortu zuten ofizialki.
**1979.** Eskoziak bere legebiltzarra izateari buruzko lehenengo erreferenduma. Baiezkoak irabazi zuen, baina ez zen ailegatu errolda osoaren %40ra, eta, beraz, bertan behera geratu zen asmoa.
**1997.** Eskozian legebiltzarra ezartzeari buruzko bigarren erreferenduma. Baiezkoak irabazi zuen, eta 1999an martxan zen Holyrood.
**2007.** Eskoziako Parlamenturako hauteskundeetan, SNPk jaso zuen boto gehien. Gobernua gutxiengoan osatu zuen, eta mahai gainean ipini zuen aspaldiko asmoa: independentziari buruzko erreferenduma antolatzea.



**James I.a erregea.**

**2009.** Erreferendum Legearen proiektua: Eskoziako Legebiltzarraren eskumenak zabaltzeari buruzko herri galdeketa proposatu zuen gobernuak.
**2011ko maiatza.** SNPk gehiengo osoarekin irabazi zituen Eskoziako hauteskundeak; Salmondek hitzemari zuen agintaldiaren amaierarako independentziari buruzko erreferenduma egingo zutela.
**2012ko urtarrila.** David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroa




Independentziaren aldeko joera %30 zen hasieran, bi urteko kanpainaren ostean, ezezkoa berdindu du.

prest agertu zen erreferenduma baimentzeko, baldin eta hemezortzi hilabeteko epean egiten bazuten. Hala ere, independentziaren alde ez egiteko eskatu zion Eskoziako herritarrei, eta eskumen gehiago eskaini zizkien Erresuma Batuan jarraitzearen truke.

**2012ko urria.** Edinburgoko Hitzarmena sinatu zuten Alex Salmondek eta David Cameronek. Hitzarmen horren bidez, erreferenduma antolatzeko eskumena utzi zion Erresuma Batuko Gobernuak Eskoziakoari.

**2013ko otsaila.** Erreferendumerako proiektua martxan jarri zuten, 2013ko udazkenean Erregetzari aurkezteko.

**2013ko azaroa.** Independentziaren nondik norakoak jasotzen dituen Liburu Zuria argitaratu zuten.

**2014ko otsaila.** Londresko hiru alderdi nagusiek —kontserbadoreek, laboristek eta liberal-demokratek— adostu zuten ez ziotela utziko libera esterlina erabiltzen Eskoziari.

**2014ko maiatza.** Europako hauteskundeetan, SNPk lortu zuen boto gehien (%29 eta bi ordezkari), Alderdi Laboristaren (%26 eta bi), Alderdi Kontserbadorearen (%17 eta bat) eta UKIP (%10,5 eta bat) alderdi euroeszeptikoaren aurretik. Erresuma Batuan UKIPek irabazi zituen bozak: 4,4 milioi botorekin, 24 ordezkari eskuratu zituen.

EDINBURGOKO KRONIKAK
Martxelo Otamendi

# Beroaren mapa

Eguraldi saioetan, zerbait asmatu behar, eta modan jarri da hozberoa kolore bidez adieraztea. Gorria da beroa, eta, tenperatura jaisten doan neurrian, horia, berdea eta urdina erabiltzen dituzte. *Beroaren mapa* deitu zioten asmatzaileek (*heatmap*); meteorologian ez ezik, beste arlo askotan erabiltzen da.

Interesgarria izango da gaur gauean Europako beroaren mapa ikustea, kezka politiko handiena non den antzematea. Zein puntu gorri aurreikus litezke? Edinburgo, Londres, Brusela, Madril, Bartzelona, Washington, Euskal Herria...

Edinburgon eta Londresen, bistan da, erreferenduma Erresuma Batuan delako. Lehenengo hiribururan, gaurtik aurrera estatu berri bat izan daitekeelako, horrek esan nahi duen guztiarekin. Bigarrengoan, arrazoi beragatik, baina alderantziz, lurralde aberatsa eta estrategikoa galduko duelako, eta bereizketaren prozesua diseinatu eta, harmoniaz, auzoko berriarekin landu beharko duelako.

Brusela izango da beste gorrigune bat, baiezkoak irabaziz gero Eskoziako independentziari buruz orain arte esandakoak tiraderan sartu eta diskurtso berri bat asmatzen hasi beharko duelako. Diplomazia finean ohi denez, esan behar zirenak esan zituzten, nahiz bihartik aurrera kontrakoak esan beharko dituzten. Bruselako inprenta politikoan aspaldi dute gordea USB batean Europako mapa berriaren bozetoa, gaur zer gertatu.

Madrilen ere gau luzea pasatuko dute. Asteak daramatzate kezka ezin disimulaturik; jakin baitakite Eskozian baiezkoak irabazten badu hurrengoa Katalunia dela. *New York Times International* egunkariak egin zuen zerrenda: Eskozia, Katalunia, Euskal Herria, Flandria eta Padania... Espainian oso zaila egingo zaie ukatzea eta debekatzea hegazkinez bi ordura dagoen lurraldean posible izan dena. Londresek adina nahi du Madrilek ezezkoak irabaztea.

Bartzelonan, Katalunia osoan, Edinburgon bezain urduri egongo dira kalkulagailuari begira, baiezkoaren garaipenak sekulako indarra emango diela independentziazaleei. Bi arrazoirengatik: Eskoziak erakutsi duelako posible dela egitea eta baita irabaztea ere, hala gertatzen bada. Kanpora begirako diskurtsoa, nazioarteko diplomaziaren zelaian jokatzen dena, legitimatuta geratzen da; eta, barrura begira, Eskoziaren baiezkoak bost puntu igotzen du independentzia nahia Katalunian. Kualitatiboki balio handiko puntuak izango dira, erabakitzaileak.

Aurreko hiriburuak baino intentsitate gutxiagorekin akaso, baina Euskal Herria izango da beste puntu gorri bat gaur gaueko mapan. Eskozia eta Kataluniako maila berean ez egon arren, Eskoziaren baiezkoak haizea emango dio gure herriko independentismoari, eta behartu egingo du gehiengoa ekarriko duten akordio eta estrategia komunak lantzera. Kostako zaio Euskal Herriari, Kataluniak ostiralean lortu zuen gisan, *NYT International*-en azaleko argazkia irabaztea; bidea ekinez egiten da.

Zer gertatuko da gaur hemen, Eskozian? Inkesten arabera, justu iritsiko dira azken minutura. Baiezkoak abantaila soziologiko batekin jokatzen du: aukera alaia da, berritzailea, ilusio piztailea, egoera berria eta ustez hobea eskaintzen duena, katea apurtzera deitzen duena, txapa paparrean harrotasunez daramana... Ezezkoa gordeta egon liteke inkestetan, aukera itsusia delako, iluna, jarraipenezkoa... baina susto ederra eman lezakeena gaur gauean. Baiezkoaren aldeko guztiak atera dira inkestetan; ezezkoaren aldekoak?

Pena da independentziazaleek eskaintzen diguten Eskozia berria ez hastea boto kontaketaren sistemarekin. Lau milioi boto, baina emaitza ez dugu goizeko seiak arte jakingo. Elektronikaren garaian, botoak txalupaz edo autoz eramango dituzte 32 kontaketa guneetara. Horregatik jakingo dugu horren berandu emaitza gaur mundu erdia Eskoziara begira egon arren.

«Gauean lainoa egiten badu, autoa mantsoago joango da, botoak beranduago iritsiko dira, eta emaitzak atzeratu egingo dira», esan zigun asteartean, irribarretsu, Michael Bauer independentziazale eta euskaldun berriak Glasgown.

# «Orain arte Dr. Jekyll ibili da kalean; bihar Mr. Hyde aterako da»


SAMARA VELTE

## **Colin Fox** • SSP Eskoziako Alderdi Sozialistako burua

Independentziaren aldeko kanpaina ofizialeko hirukoa bozketaren ondorenerako prest dago: baiezkoa bada, negoziatzea dagokie; ezezkoa bada, «independentzia etorriko da aurki».

**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

*Yes Scotland*, independentziaren aldeko kanpaina ofiziala, hiru alderdik osatzen dute: SNP Eskoziako Alderdi Nazionalak, Berdeek eta SSP Eskoziako Alderdi Sozialistak. Azken horretako burua da Colin Fox (Motherwell, 1959), eta harro dago kanpainan izan duten esku hartzearekin: «SNPrentzat ezinezkoa zen bozketa euren kabuz irabaztea; gure beharra zeukaten, batez ere klase behartsuenengana heltzeko».

**Hasieran, SNPk ez zintuzten kanpainan parte hartzera gonbidatu, parlamentuan ordezkaritzarik ez duzuela argudiatuta. Zer moduzkoa izan da harrezkero elkarlana?**

Tira, ikuspegi desberdinak ditugu. SNPk bere *Liburu zuria* argitaratu du, eta guk gure bide orria daukagu Eskozia sozialista baterako. Hori ona da, ñabardurak gehitzen dizkiolako prozesuari. Bihartik aurrera, Alex Salmondek niri eta Patrick Harvey Berdeen buruari hots egin beharko digu, *Team Scotland* delakoan parte hartzera gonbidatzeko. Hori izango da gero independentzia negoziatuko duen erakundea.

Dena den, une honetan garrantzitsuena da lehenbizi baiezkoak irabaztea; hori gabe, ez daukagu ezer. Kontuz ibili behar dugu, eman nahi dugun irudia ez baita dena irabazita dagoela, eta badakigula zer gertatuko den honen ostean: harro itxura emateko arriskua dago. Baina, jakina, kameren atzean ari gara hizketan, Eskozia independente hori nolakoa izango ote den. Bihartik hasi eta hurrengo hauteskundeetara 18 hilabeteko epea dago; tarte horretan negoziatu beharko dugu Koroaren bitxien zein zati dagokigun, zenbat dagokigun Londresko metrotik, zenbat Heathrowko aireportutik... Erresuma Batuaren zorretik dagokigun zatia ordainduko dugu, baina gure diruarekin erositako ondasunetatik dagokigun zatia ere eskuratu nahi dugu.

**Eskozia independente bihurtzen bada, nola aldatuko da egoera politikoa?**

Airean dago guztia. Dakigun gauza bakarra da gaur egun ikusten dugun Eskozia ez dela berbera izango bihar. Alderdi guztiek presio handia sumatuko dute. SNPk, adibidez: demagun irabazi egiten duela. Garaile ofiziala izango da, baina alderdiko hainbat kidek euren burua sozialistatzat daukate, eta ziurrenik aurki egingo dute ospa SNPtik. Zuzendaritzak nagusitasunari eutsi nahiko dio: «Gu gara alderdi nagusia, guk kudeatu behar dugu herrialdea, alderdi nazionala da guztientzako alderdia»; irudika dezakezu.

**Nolanahi ere, SNPrentzat posizio eroso samarra da. Laboristek oso gaizki amai dezakete.**

Erabateko hondamendia izango da. 120 urteko alderdia da, urte luzez Eskoziako alderdi nagusi izandakoa; garai batean, mundu guztiak bozkatzen zuen haren alde, eta SNPk gaur daukan babesa baino askoz gehiago zeukan. Baina zuzendaritzak harremana galdu du boto-emaileekin, eta Erresuma Batuaren ahotsa bihurtu da kanpainan. Duela hilabete %22ko abantaila zeukaten inkesteran; orain, begira non dauden. Beraz, bihar baiezkoa ateratzen bada, pentsatzen dut Eskoziako laboristen buruak dimisioa emango duela, eta ez ninduke harrituko Erresuma Batukoak ere egingo balu. Kontu honek alde guztietan izango ditu ondorioak.

**SNPk, gobernuko alderdi gisa, presio handia jasoko du enpresa mundutik. Nola erantzungo du?**

Politika ekonomikoari dagokionez, beste edozein bezain eskuindarra da. Alex Salmondek sozietate zergan eta soldata apaletan oinarritutako eredu bat ezarri nahiko du, eta hor badu gatazka SSPrekin. Beraz, pentsatzekoa da *Team Scotland*-en barruan bere hala sortuko direla gatazkak. Nolanahi ere, *Yes* koalizioa hasia da sakabanatzen, NATO, monarkia, neoliberalismoa eta halako gaiak direla medio.

> **«Luzaroan uste izan dugu gerta zitekeen okerrena Quebecekoa errepikatzea zela: gutxigatik galtzea»**

> **«Orain ohartu gara kasu bitxia Erresuma Batua bera dela: batasun politikoak oso ezohikoak dira gaur egun»**

**Eta ezezkoa bada, nola eragingo dio mugimenduari?**

Luzaroan uste izan dugu gerta zitekeen okerrena Quebecekoa errepikatzea zela: tarte oso txikiarekin galtzea. Orain ohartzen gara ezetz, bi kasuak oso desberdinak direlako. Quebecen baiezkoa aurretik zihoan, eta azken unean galdu zuten; horrek nabarmen ahuldu zuen ilusioa. Eskozian, independentziaren aldeko babesa ez da sekula %35 baino handiagoa izan, eta orain askoz altuagoa da; hori izugarrizko aurrerapena da. Izuak jota dago alde unionista: David Beckhamek hitz egin du independentziaren aurka, erreginak ere bai... patetikoa da. Haientzat, boto batengatik irabaztea jada garaipena da. Guretzat, independentzia atzeratzea baino ez da.

**Kalean ez da suhartasun handirik sumatzen, egia esan.**

Kulturala da hori: badakizu, Eskozia leku hotza da, herrialde presbiterianoa. Jendea ez dago ohituta bere emozioak adieraztera. Kontserbadoreek «gehiengo isilaren» ebidentziatzat jotzen dute hori, baina ez da nahastu behar; herritarren %97k emango dute botoa. Dr. Jekyll eta Mr. Hyde gara: orain Dr. Jekyll dabil kalean; ez dio inori esaten zer bozkatuko duen, eta eguneroko bizitza egiten du. Bihar, Mr. Hyde aterako da kalera.

Jakina, hemengoa ez da Europa hegoaldeko mugimendu independentisten gisakoa: ez gaude modu berean zapalduta, ezta aginte militarraren pean ere. Beste era bateko kontrola da, burukoa, jendeak bere burua kontrolatzen du. Ez dago zapaldutako eskoziar nortasunik. Ni haurra nintzenean, inork ez zuen onartzen eskoziarra zela: britainiarra zinen. Elkarrekin eraiki genuen ongizate estatua, osasun sistema nazionala, gizarte segurantza... *British* deituriko enpresak zeuden nonahi: British Steel Corporation, British Railways, British Telecom... Gero Thatcher allegatu zen, eta manufaktura guztia suntsitu zuen; eta orain ez daukagu *British* den ezer. Royal Bank of Scotlandek ere ez. Aldaketa kultural hori oso garrantzitsua da psikologikoki.

**Nola eragin du gizartean?**

Garai bitxi horietako batean gau den irudipena daukat. Orain, mundu guztiak du gauza askori buruzko iritzia: diruaz hitz egingo dizute, edo Europako Batasunaz, edo NATOz eta erreginaz. Inplikatuta daude. Duela hilabete batzuk, ziurrenik interesgarriagoa zitzaien telebistako edozein zabor.

Luzaroan, independentziaren aldeko borroka gauza eszentrikoa izan da. Jendeak ez zuen ulertzen: «Ideia eroa da; globalizazioan gaude, mundua elkartzen ari da». Baina orain ohartu gara ez dela eszentrikoa; areago, Erresuma Batua bera dela kasu bitxia, ez baita herrialde bakarra. Lau herrialdek osatzen dute, eta batasun politikoak oso ezohikoak dira gaur egun. Naturala, aldiz, herrialde independenteak dira; aske, euren buruaren ardura hartuta. 180 herrialde daude, eta Eskozia 181.a bihurtuko da bihar.



Alex Salmond Eskoziako lehen ministroa, garaipenaren keinua egiten, Strichenen botoa eman ondoren. ANDY RAIN / EFE

# Eskoziaren historiako botoa

Eskoziako herritarrak errenkadan joan dira independentziari buruzko erreferendumean botoa ematera • Okerrik ezean, botoak gauean zenbatu, eta emaitza gaur goizaldean jakinaraziko dute

**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

Aspaldiko partez, ilara luzeak sortu ziren atzo Eskoziako hiri nagusietako hauteslekuetan. Batzuk goizean goizerako zain zeuden atarian, 06:30erako, lokala noiz zabalduko; beste batzuek ilundu ostean ere botoa eman gabe zeukaten oraindik. Kutxak itxi orduko hasi ziren botoak zenbatzen; emaitza, okerrik ezean, gaur goizaldean jakinarazia izango dute.

Denera, 4,3 milioi lagun inguru zeuden erregistratuta independentziari buruzko erreferendumean parte hartzeko, orain arteko bozketa guztietan baino gehiago. Hauteskunde Batzordeak hainbat lokal berri zabaldu ditu egun handirako: eskola publikoetan ez ezik, elizetan eta eraikin arruntetan ere jarri ditu botoa emateko kutxak. Guneetako bat Edinburgo erdialdeko Comino kafetegian ipini dute. Sartu bezain pronto, kartel bat bi gezirekin: *coffee*, eskuinera; *voting*, ezkerrera. Atarian, kanpaina nagusietako talde bana: alde batean, *Yes Scotland*-ekoak puxika sorta urdin handi batekin; bestean, *Better Together*-ekoak gurutze txikiko txapekin: *No thanks* (Ez, eskerrik asko). Biek itsasgarriak eskaintzen dizkiete sartzera doazenei; erreakzioaren arabera, aise jakin daiteke zer bozkatuko duten. Batzuek harro dakartzate euren ikurrak etxetik; beste batzuek propio hartzen dituzte besteenak, alde batek eskaintzen dizkienean. Emakume bati puxika urdin bat eskaini diote, baina ozen errefusatu ditu puxika eta independentzia: «*No, thanks!*».

Batzuek errezeloz erantzuten dute nahiago dutela bozkatu dutenaren berri ez eman. Beste batzuek pozik azaltzen dituzte euren erabakiaren nondik norakoak. Bada sekula zalantzarik egin ez duenik: «Zertarako konpondu behar dugu hautsita ez dagoena?». Eta badira kanpainarekin iritzia aldatu zaienak. «Hasieran ezetz bozkatuko genuela pentsatzen genuen, besterik gabe ez geundelako disgustura geunden bezala», azaldu du Lois Vettesek. «Baina ezezkoaren kanpaina oso negatiboa izan da, eta oso berandu etorri dira haren eskaintzak: denbora gehiena baiezkoaren argudioen aurka egiten igaro du». Haur txikiarekin joan dira botoa ematera Vettese eta Joe senarra. Boto emaile laborista klasikoak dira: «Alderdietatik aparte dagoen bozketa bat da hau. Orain independentzia nahi dugu, eta hemendik bi urtera erabakiko dugu zein alderdiren alde bozkatuko dugun. Herrialde independenteetan ere hori egiten dute, ezta?».



**«Hasieran ezetz bozkatuko genuela pentsatzen genuen, ez geundelako disgustura geunden bezala»**

**Lois Vettese**
Boto-emailea



**«Askatasunaren argudioa ergelkeria bat da. Ez gaude zapalduta; hemen ez dago okupaziorik»**

**Elena Chabo**
Boto-emailea



**«Euskal Herrian erreferenduma egiten baduzue, arren, ez ipini 'bai' edo 'ez' erantzun beharreko galdera bat»**

**Peter Emerson**
Behatzailea

## Zalantzarik gabekoak

Benjamin Panmen gaztea kontrako erabakia hartzera bultzatu zuten ia. «Nahiko argi neukan baietz bozkatuko nuela, baina, egia esan, kanpainak fedea galarazi zidan. Oso zikina izan da bi aldeetatik». 23 urteko ikaslearentzat, independentzia «ez da diru kontua»: «Bigarren Mundu Gerratik iraun duen sistema hau aldatzeko aukera bat daukagu orain».

Adin kontua, behintzat, ez da. 20 eta 21 urteko bi neska berriketan atera dira kafetegiko ezkerreko aldetik, sakelako telefonoak eskuan. Ezezkoaren aldeko ikurrak dauzkate haietan itsatsita. Lotsatuta, elkar aurkeztu dute:

EDINBURGOKO KRONIKAK
Martxelo Otamendi



# Klub esklusiboa

Estaturik gabeko nazio asko daude munduan, estatuak baino (askoz) gehiago. Ez daude denak egoera berean, ordea; askoz eskubide onartuagoak dauzkatelako, esate baterako, flandriarrek maputxeek baino.

Talde handi horren kide gutxi batzuek klub esklusibo bat osatzen dute; haien etorkizuna modu demokratiko eta hitzartuan erabakitzeko eskubidea daukaten naziek osatua.

Elite horretan daude Quebec, Ipar Irlanda –Hego Irlandarekin bat egiteko–, Puerto Rico eta Eskozia. Quebecek 1980an eta 1995ean egin zituen independentzia erreferendumak. Aurrenekoan, %59,56k bozkatu zuten independentziaren aurka, eta bigarrengoan, %50,58k. Oso gertu eduki zuen Quebecek independentzia bigarren saioan, baina ez zuen lortu. Hala ere, nahi duenean, betiere Ottawako gobernuarekin adostuta, deitu lezake Quebecek hurrengo erreferendumera. Klub esklusibo horretako kidea da.

Ipar Irlandak onartua dauka Stormonteko Hitzarmenean Irlandako Errepublikara batzeko eskubidea, baldin eta horrela nahi badute herritarrek. Esaldi bat besterik ez da hitzarmenean, baina balioa dauka. Besterik da noiz iritsiko den Ipar Irlanda egoera horretara.

Puerto Ricoko herritarrei 2012an galdetu zieten nahiko luketen estatus politikoaren gainean. Lehendabiziko galderan, ordura arteko estatus politikoarekin segitu nahi zuten galdetu zieten, eta ezezkoak irabazi zuen, %54rekin. Bigarren txandan, hiru aukera eman zizkieten: Amerikako Estatu Batuetako estatu bat izatea, independentzia eskuratzea edo AEBetako estatu libre elkartua izatea. AEBetako estatu bat izateko aukerak irabazi zuen, %61,13rekin; independentziaren aldekoak %5,54 izan ziren, eta estatu libre elkartuaren alde %33,32k egin zuten. Puerto Ricok lehen zegoen egoeran segitzen du AEBetako Kongresuak ez zuelako erreferendum hura onartu.

Eskozia izan da azkena klub esklusiboan sartzen. Estatu independente izatea nahi zuten galdetu zieten atzo 16 urtetik gorako herritarrei, eta irakurleak lerro hauek irakurtzerako jakingo dira emaitzak.

Zein izango da hurrengoa sartzen?



Bi boto-emaile, bata Union Jackaz eta bestea Eskoziako banderaz jantzita. EFE




Alistair Darling, *Better Together* kanpainako burua, Maggie emaztearekin, Edinburgon. S. LIANTICOSSLAU / EFE

Elena Chabo, Eskozian ikasten ari den ingeles bat; eta Bella Normand, «Miss Teen UK». Kanpainaz galdetuta, haserre agertu da Chabo: «Askatasunaren argudioa ergelkeria bat da. Ez gaude zapalduta; hemen ez dago okupaziorik edo antzekorik». «Gainera, oso biolentoa izan da», dio Normandek: «Entzun dut *Better Together*-ekoen kartelak erre dituztela».

Zer gertatuko den ez daki inork. Unionisten arteko elkarrizketek ere ematen dute aditzera amaitu dela kanpaina: «Irabaziko dugula uste duzu?». «Ez dakit». Chabok ere zalantzak ditu: «Nahiko kezkatuta nago, baina, beharbada, kanpaina hain zalapartatsua izan delako daukat irudipen hori».

**53 47**

**INKESTAK, EZETZAREN ALDE**

Atzo ere argitaratu zituzten erreferendumari buruzko inkestak Eskozia eta Ingalaterrako hedabideek. Azkena *Evening Standard* egunkariarena izan zen, eta independentziaren kontrako botoari sei punturen aldea eman zion: %53 kontra, eta %47 alde.

Eskoziako hirietan, Edinburgo izan ohi da kontserbadoreena. Independentziaren aldekoek harro ematen dute botoaren berri, baina unionistek ere ez dute isiltzen. Sheila eta David Beal erretiratutako senar-emazteak kafetegiko terrazan daude, norbaitek iritzia eskatzeko zain. Davidek prest dauka azalpena: «Eskozia bankarrot batetik jaio zen, badakizu? XVIII. mendean, parlamentuak elkartu zirenean, Darwin irletarako espedizio bat oso gaizki amaitu zen, eta Eskoziak hondoa jo zuen. 780.000 liberarengatik saldu zioten Erresuma Batuari. Hortik gatoz, eta horra joango gara banatzen bagara». «Zertarako nahi dugu independente izan?», galdetu du Sheilak: «Jadanik badugu gure identitate eskoziarra; ez dugu gehiago bereizi behar». Etorkin itxura daukan mutil bat atera da kafetegitik. Barre galgarraza egin du Beal andereak: «Alaba bat daukagu, Glasgown jaioa eta Edinburgon hezia. Gaur egun Yorken bizi da [Ingalaterran]; bada, hark ezin du gaur botoa eman. Nik ez daukat ezer etorkinen aurka; oso aberasgarriak dira, baina haiek bai, haiek eman dezakete. Nola uler daiteke hori?».

**Behatzailearen begirada**

Zalapartaren erdian, begirada nekatuko gizon heldu bat, kreditazio txartela lepotik zintzilik daukala. Peter Emerson, Ipar Irlandako bake prozesuan aritutakoa, behatzaile lanak egiten ari da erreferendumean. «Gauza bat eskatu behar dizuet euskaldunoi: sekula erreferendumik egiten baduzue, ez egin *bai* edo *ez* erantzun beharreko galdera bakarra; bestela, galdera bera izango da erantzuna». Eskoziaren etorkizuna erabakitzeko gutxienez hiru aukera ipini behar lituzketela uste du: «Hasieran *devo-max* aukera ere bazuten mahai gainean, baina ez zen David Cameronen gustukoa. Irabaziko zuela uste zuen; beraz, muturreko bi aukera eman zituen. Nolanahi ere, haren lehentasunen arabera ezarri zuten galdera. Demokrazia batek ez luke sekula onartu behar pertsona bakar batek erabakitzea zein galdera egin erreferendum batean. Baina *ama demokrazia* deitzen dioten honetan, gauzak oso gaizki egiten dira. *Ama demokrazia*... Jada amonatxo bat da: ez du ezertarako balio!».

Bi aukera soilik emanda herritar gehienak muturretara jotzera behartu dituztela uste du Emersonek: «Jende gehiena erdian dabil, eta soilik ezkerra eta eskuina ematen badizkiezu aukeran, ez duzu haien nahia aterako». Cameronek, berriz, bere burua harrapatu duela uste du Emersonek: «Oscar Wildek esaten zuen guraso bat galtzea tragedia bat dela; biak galtzea, berriz, arduragabekeria. Bada, Cameronek arduragabekeria galanta egin du: duela hiru urte hauteskunde sistema aldatzeko aukera izan zuen, baina soilik berari gustatzen zitzaizkion proposamenak jarri zituen aukeran. Horien ondorioz, Eskozia eskuetatik ihes egiten ari zaio; eta, gainera, inoiz baino zailagoa izango da Alderdi Kontserbadorearentzat Londresen gehiengo osoa lortzea».

# «Independentzia ez da helburu bat bere horretan, bide bat da»

**Xavier Solano** • SNPren aholkularia

Eskozian etxean sentitzen da Xavier Solano kataluniarra (Bartzelona, 1976) bUrte luzez SNPren aholkulari jardun du Edinburgon eta Londresen bErresuma Baturako ulertu ordezkaria ere izan zen



CATMEDIA

**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

Aise mugitzen da Edinburgoko alde zaharreko karrika estu eta behe laino loditan; Xavier Solanok tripetaraino ezagutzen du Eskoziako politika, eta gertutik jarraitu du independentziarako prozesua. Erreferendum egunaren bezperan hitz egin du BERRIArekin.

**Nola aldatu da Eskozia urteotan guztiotan?**

Bere buruarenganako konfiantza irabazi du. Hori da Eskoziaren arazo psikologiko handia: urte luzez sinetsi izan du ez zela aski ona ezer egiteko. Orain, eskoziar belaunaldi berri bat dago ez adineko belaunaldi bat, baizik eta espirituzkoa–, eta belaunaldi horrek erakutsi du kontzientzia hazten ari dela eta eskoziarrak beste edonor bezain egokiak direla euren baliabideak kudeatu eta erabakiak hartzeko.

**Zerk eragin du aldaketa hori?**

Faktore askok. Alde batetik, lagundu du euren parlamentua eta gobernua izateak, eta erakunde horietan SNPren gisako alderdi batek agintzeak, nekatu arte errepikatu baitu Eskozia independentea beste edozein errealitate politiko eta ekonomiko bezain bideragarria dela, inguruko beste edozein herrialde bezala: Irlanda, Erresuma Batua edo herrialde nordikoak. Jendea perspektiba horretatik pentsatzen hasi da: «Aizue, gauzak desberdin egin ditzakegu».

Kontuan izan SNPk eredu sozialdemokrata bat bilatzen duela; eredu britainiarra, aldiz, askoz kontserbadoreagoa da. Bi parlamentu bereizi dituztenetik, Eskoziak eta Ingalaterrak bide desberdinak hartu dituzte, eta Eskozia, argi eta garbi, gizarte sozialdemokrata baterantz doa: ingurumenarekin konprometitua, negozioak egitearen aldekoa, baina, batez ere, sozialki justua.

Aldaketa sumatzen da dagoeneko: Erresuma Batuan, unibertsitateko ikasleak 9.000 libera ordaintzera behartu daitezke ikasturte bakoitzean, eta hemen ez dute ezer ordaintzen, berdin medikuaren errezetekin. Halako gauzek erakusten dute estatu ereduen arteko desberdintasuna.

**Erreferendumerako kanpaina abiatu zutenetik, independentismoa hazten joan da. Kanpainek lagundu dutela uste duzu?**

Lagundu duena, batez ere, independentismoa ikusteko modua izan da: independentzia ez da helburu bat bere horretan, baizik eta bitarteko bat. Helburua herrialde osoaren bizi maila hobetzea da. Mundu guztiak ziurtatu nahi du bere seme-alabak leku hobe batean biziko direla; toki justuago, lehiakorrago, aberatsago eta osasuntsuago batean. Eskoziako herritarrek ulertu dutena da, balako herrialde bat eraikitzeko, hobe dela tokiko baliabideak gertu kudeatzea.

**Baiezkoak irabazteko adina?**

Asko aurreratu dutela esango nuke. Kontuan izan 300 urte daramatzatela Eskozia konbentzitu nahian txikiegia dela, ergelegia eta inkonpetenteegia ezer bere kabuz egin ahal izateko. SNPk 2007an hauteskundeak irabazi zituenetik –oso alde txikiarekin, soilik diputatu batengatik , etengabe aritu da beste mezu bat igortzen: «Ez gara hain inozoak, ez inkonpetenteak, ez eta hain behartsuak ere: gai gara ekonomikoki bideragarria den herrialde bat eraikitzeko, guk nahi dugun eredura gehiago hurbiltzen dena».

**Zer ikas dezakete beste mugimendu independentistek Eskoziatik?**

## «Okerra litzateke bozketak Katalunian eragitea»

**S. V.** *Edinburgo*

Solanok Londrestik behatu du Kataluniako Diada: «Europan, oso kausa gutxik pila dezakete hainbeste jende. Mendebaldeko gizarteetan, oro har, handitzen ari da herritarren eta politikaren arteko distantzia, eta Eskozia eta Katalunia kontrako eredu bikainak dira».

**Nola eragingo dio Eskoziako erreferendumak Kataluniari?**

Kataluniak beti behatu eta aztertu du kanpoan gertatzen zena. Duela urte batzuk, erreferentzia nagusia Euskal Herria zen, eta badirudi orain Eskozia dela. Hala ere, errealitate nazional bakoitza desberdina da. Kataluniako prozesua behetik gora eraikitakoa da; Eskoziakoa, aldiz, goitik beherakoa. Testuinguru konstituzionala ere erabat desberdina da.

**Ostiralean [gaur] bozkatuko dute Kontsulten Legea Kataluniako Parlamentuan.**

Diada egunean, ANC Biltzar Nazional Katalanak 750.000 sinadura bildu zituen lege hori eskatzeko. Pentsa: 750.000 lagun, zazpi milioi biztanleko herrialde batean, herritarren %21 kalera irten ziren egunean. Eskari hori kontuan hartu behar dute.

**Eskoziako erreferendumaren emaitzak eraginik izango du?**

Kataluniak badu aski pisu historiko bere bidea egiteko, eta okerra litzateke Eskoziako errealitate politikoak hango animoetan edo, areago, galdeketaren emaitzan eragingo balu. Nolanahi ere, Eskozian gertatzen ari dena ariketa demokratiko bat da; legez loteslea izan gabe, politikoki bada, lehen ministroak onartu duelako. Halako auziak ebazteko eredu bat sortu du Erresuma Batuak, eta, nire ustez, gainerako nazioei ez dagokie soilik hura onartzea, baizik eta baita indarrean jartzea ere.

**Dena den, irudipena ematen du hemen kosta ala kosta saihestu nahi dituztela beste prozesuekiko konparazioak: ez dute Eskozia Kataluniarekin alderatu nahi, are gutxiago Euskal Herriarekin.**

Oso errealitate desberdinak dira. Antzekotasun handiak daude, jakina: Katalunia, Euskal Herria eta Eskozia nazio historikoak dira, haiek gabe ezinezkoa litzateke gaur egungo Europa ulertzea. Baina, bestalde, hainbat berezitasun dituzte. Hemen, administrazio batek bere Estatuko gobernuarengana heltzea lortu du, ariketa demokratiko hau egin zezan; zailtasuna gerora etorri da, herritarrak baiezkoaren alde konbentzitu behar izan dituztenean. Eta horretarako ahalegin handia egin behar izan dute. Ez gara David eta Goliati buruz ari: Goliat eta hamiari buruz ari gara. Estatu britainiarraren makinaria guztiaren aurka egin behar izan dugu, Eskoziak azken mendeotan izan duen erronka garrantzitsuenean.

Hobe lukete arreta handia ipini. Alde batetik, nabarmentzekoa da Eskozian garatu duten independentismo eredua: helburua ongizatea da, eta hori ez da ahaztu behar. Bestetik, komeni da Eskoziako eta Erresuma Batuko gobernuen artean sortu duten dinamika ulertzea: nola ipini diren ados galdeketa bat egiteko eta subiranotasuna herritarren esku uzteko, haiek euren etorkizuna modu demokratiko eta librean erabaki dezaten.

**Zein izango da emaitza?**

Nire ustez, baiezkoak irabaziko du. Kanpaina gogotsua eta positiboa egin dute; aurkakoena, aldiz, oso negatiboa izan da. Eskoziarrak izutzeko asmoa zeukaten, eta beharbada lortu zuten hasieran, baina azkenerako herritarrek erabaki dute ez dutela beldurtu nahi, nahiago dutela proiektu positibo eta handinahi bat babestu. Azken batean, herrialdeak hobera egitea nahi baduzu, ez dizu ezertarako balio ezer positiborik nahi ez duten agintariak badauzkazu.

**Nolakoa izango da erreferendumaren osteko eguna?**

Zoragarria izango da. Eskoziarrei zorionak emango dizkiegu euren eskubide subiranoa erabili dutelako; eta, okerrik ezean, parte hartze erraldoiarekin, gainera. Emaitza bi aldeek onartuko dute, eta elkarrekin lan egingo dute hura edozein izanda ere.

**Lehen aipatu duzun jabetze hori, gizartearen konplexuak alde batera uztea, horrek zein itxura hartuko du erreferendumaren osteko garaian?**

Eskoziarrek badute oinarri aski demokratikoa gehiengoak erabakitako emaitza onartzeko, hark botoen %50+1ekin soilik irabaziko balu ere. Alex Salmond lehen ministroak esan zuenez, irailaren 19an jada ez da egongo baiezko edo ezezko kanpainarik; *Team Scotland* egongo da, talde eskoziarra.

Horrek zera esan nahi du: Eskozian erabakitzen dena erabakitzen dela ere, bete egingo dute, eta eskoziar guztiek babestu beharko dute.

**Nolako eragina izango du erreferendum honek Erresuma Batuan?**

Erresuma Batuak hainbat auzi konstituzional dauzka argitzeko, eta pentsatzen dut haiei aurre egiteko eskaria haziko dela. Esate baterako: Ingalaterra ez da existitzen nazio politiko gisa. Erresuma Batua osatzen duten lau nazioen artetik, bakarra da parlamentu bereizirik ez daukana. Hemen *The Lothian Question* esaten diotena da: Eskoziari, Galesi eta Ipar Irlandari soilik eragiten dioten gaiei buruz, leku horietako parlamentuek erabakitzen dute; baina Ingalaterrari eragiten dioten gaiei buruz erabakitzeko, Parlamentu Britainiarra baino ez dago. Horrek esan nahi du, gaur egun, Eskoziako hainbat diputatuk ere hartzen dituztela Ingalaterrari soilik eragiten dioten auziei buruzko erabakiak.

Eskozian baiezkoa ateratzen bada, Erresuma Batuarentzat ere balioko dio politikoki garatzeko, eta, gainera, Britainia Handiko lurraldeen arteko elkarlana hobetuko da, aliatuak izango direlako hainbat arlotan.

**Londrestik nola ikusten da kontua?**

Ikuspegi politiko batetik, akats handi bat egin dute: ez diote arretarik eskaini Eskoziak zekarren erronkari. Nire ustez, Londresek ez du Eskozia ulertu, eta 2014ko irailaren 18a izan liteke Erresuma Batua, orain arte izan den moduan, ulertzen dugun azken eguna.

**Eta Europako Batasunari nola eragingo dio? Bruselak ere berriz pentsatu beharko ditu hainbat gauza?**

Interesgarriena zera da: Eskoziak independentzia lortzen badu, Europako Batasunean barruko hedapen bat gertatuko da, eta horixe da EBri falta zaion erronka nagusia. Orain arte ibili gabeko bideak zabalduko lirateke, eta atea irekiko litzateke beste zenbait kasurentzat.

Baina, aizu: AEBetan 300 milioi lagun bizi dira 50 estatutan; EBn, aldiz, 300 milioi dira, baina 28tan; eta AEBak munduko ekonomia lehiakorrena dira. Bruselarentzat ere adi egoteko unea da.

**Ingalaterrak eta Eskoziak bide desberdinak hartu dituzte, eta Eskozia gizarte sozialdemokrata baterantz doa argi eta garbi»**

**«Londresek ez du ulertu Eskozia: irailaren 18a izan liteke Erresuma Batua orain arte izan den gisan ulertuko dugun azken eguna»**

**«Irailaren 19an jada ez da egongo baiezko edo ezezko kanpainarik; 'Team Scotland' egongo da, eta eskoziar guztiek onartuko dute»**

## «Erresuma Batuak indartsu eta batuta jarraituko duen ustea badaukat»

**Barack Obama**
AEBetako presidentea



Eskozian hautes mahaiak ireki bezperan, ezetzaren alde egin zuen Obamak: «Erresuma Batua bazkide bikaina da Amerikarentzat, eta ongiaren aldeko indar bat mundu ezegonkor batean. Indartsu, sendo eta batuta jarraituko duen ustea badaukat».

## «Europa eraiste prozesu batean sartzeko arriskua dago»

**François Hollande**
Frantziako presidentea

«Zeinek ziurta dezake zer emaitza utziko duen Eskoziako erreferendumak? Eta Erresuma Batuaren geroa zein izango den? Europa, eta baita estatuak ere, eraiste prozesu batean sartzeko arriskua dago; berekoikeriari, populismoari eta separatismoari ateak irekitzekoa».

## «Eskoziarrek jada irabazi dute»

**Muriel Casals**
ANCko presidentea

«Gertatzen dena gertatzen dela, eskoziarrek jada irabazi dute, herrialdearen etorkizuna beren esku dutelako. Baietzaren eta ezetzaren aldeko argudioak errespetu osoz eta inteligentzia eta intentsitate handiz eztabaidatu dituzte».

## «Eskoziarentzat egun handia da. Egin dezagun!»

**Andy Murray**
Tenis jokalari eskoziarra

Andy Murrayk ezin izan du botorik eman, ez delako Eskozian bizi. Baina iritzia eman du: «Egun handia da Eskoziarentzat. Kanpainari eman dioten kutsu ezkorrak bultzatu nau baiezkora. Irrikan nago emaitzak jakiteko. Egin dezagun!».



Eskoziako SCCC zentroko hiru adituk beste lekuetako mugimendu independentistak aztertu dituzte: autonomia estatutuak huts egitea izan ohi da katalizatzailea.

# Eskoziaren ispiluak

**S. Vette** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

Zerk batzen ditu Eskozia, Quebec eta Katalunia? Eta zergatik geratzen dira Bavaria, Sardinia eta Ipar Euskal Herria talde horretatik kanpo?

Eskoziako Aldaketa Konstituzionaleko Zentroko (SCCC) hiru adituk estaturik gabeko nazio txiki batzuetako mugimendu independentistak aztertu dituzte, eta Eskoziako prozesuarekin alderatu dituzte. Bettina Peterson, Daniel Cetra eta Robert Lineira adituen arabera, mugimendu independentista indartsu bat sortzeko ez da aski estatuen aitortzarik ez jasotzea: beharrezkoa da hura kanalizatuko duen mugimendu politiko bat osatzea.

«Hainbat lekutan, nazio gutxituak egon arren, aktore politiko indartsu bat falta da», azaldu du Petersonek, eta Ipar Euskal Herria jarri du adibide gisa: «Ikusi behar dena da estatuarekiko diferentzia zenbaterainokoa den, eta ea badagoen hori bideratuko duen aktore bat. Jakina, askoz zailagoa muga administratibo bat tartean dagoenean».

Eskoziarekin alderatzeko moduko bi kasu nabarmendu dituzte: Katalunia eta Quebec. Gainerakoak «urrats bat atzerago» daude: «Euskal Herrian badago ideia bat estatutu politiko berri bat sortzeko, baina horretarako hainbat baldintza hobetu behar dira. Eta Flandrian, independentismoak oso babes txikia dauka, eta konfederazio bat proposatzen dute».

### Lezioak Kataluniarentzat

*Lehertu* izan diren kasu independentistetan, katalizatzailea ber bera izan ohi da: aurreko autonomia estatutuak huts egitea. «Quebecen, 1980ko erreferendumaren ondotik egin zuten aldaketa konstituzionalari buruzko eztabaida, eta 1995eko bozketak hura berrestea zuen helburu. Baina herritarrei galdetu zietenean, ez zuten ontzat jo, eta horrek asko apaldu zituen asmoak». 2012an Parti Quebecois independentista gobernura allegatu zen, eta hauteskundeak aurreratu zituen. «Hirugarren erreferendum baterako promesarekin botoak lortuko zituztela uste zuen, baina oker zegoen», azaldu du Petersonek: «Jendearen helburua ez da beti independentzia. Gobernuak ez dira gai bakarreko instituzioak, eta herritarrek hainbat arrazoirengatik baloratzen dituzten».

Katalunian ere antzeko zerbait gertatu zen 2012an, CiUk subiranismoaren promesarekin hauteskundeak aurreratu zituenean. «Beti pentsatu behar da zergatik aurreratzen dituen gobernu batek hauteskundeak. Jendeari iruditzen bazaio jokabide estrategikoa dela, sarri gaizki ateratzen da». Horixe gertatu zitzaion Parti Quebecoisi apirilean; eta baita CiUri 2012an ere, ez baitzuen esperotako gehiengo osoa lortu.

Quebecekoa lezioa izan daiteke puri purian dauden mugimendu independentistentzat, Cetraren arabera: «Eskoziako alderdiek emandako hitza betetzen badute, ez dut uste berehalakoan beste erreferendum bat egingo dugunik».

**Hainbat lekutan, nazio gutxituak egon arren, mugimendu hori bideratuko duen aktore politiko indartsuak falta dira»**

**Bettina Peterson**
SCCC zentroko aditua

**«Eskoziako alderdiek emandako hitza betetzen badute, ez dugu beste erreferendum bat egingo berehalakoan»**

**Daniel Cetra**
SCCC zentroko aditua



**Independentziaren aldeko eskoziarrak, Edinburgon, lur jota, gau osoko boto kontaketaren ostean ezetzak irabazi duela jakitean.**

# Hautsi da ametsa

## Bi urteko kanpainak %45eraino igoarazi du Eskoziako independentismoa, baina ez da aski izan irabazteko • Alex Salmond lehen ministroak dimisioa iragarri du

**BOTOAK ADIN TARTEKA**




ITURRIA: LORD ASHCROFT POLLS

**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

«Erreferenduma galdu dugu, baina oraindik eutsi diezaiokegu ekimen politikoari. Eskozia garaiz dabil benetako garailea izateko. Hau ez da alderdi politiko baten edo pertsona jakin baten prozesua; hori baino askoz gauza handiagoa da. Horregatik uste dut, oraintxe bertan, egokiagoa dela beste norbait agintean egotea». Begirada goibelarekin baina baretasun handiz eman du Alex Salmond Eskoziako lehen ministroak dimisioaren berri. Independentziari buruzko erreferenduma galduta ere, Eskozian «aukera berri bat» zabaldu dela azaldu du: «Orain presio egin behar diogu Londresi, hitza bete dezan. Horrek, dena den, ez du esan nahi etorkizunean beste erreferendum bat egin ezin dezakegunik».

Salmondek zazpi urte egin ditu Eskoziako lehen ministro karguan, eta 2012tik *Yes Scotland* kanpaina independentistaren buru aritu da. Bi urteko lan gogorraren ostean, espero baino alde handiagoarekin galdu dute erreferenduma: %45-55, unionisten alde. SNP Eskoziako Alderdi Nazionalak azaroan egingo du kongresua; ordura arte jardunean jarraituko du Salmondek.

**«Erreferenduma galdu dugu, baina ekimenari eutsi diezaiokegu. Eskozia garaiz dabil garaile izateko»**
**Alex Salmond**
Eskoziako lehen ministroa

Irailaren 18ko gaua amaitu baino lehenago hautsi da 1,6 milioi eskoziarren ametsa. Barrutien erdiak zenbatzerako, argi samar zegoen bozketaren emaitza: baiezkoa hiru eskualdetan baino ez zihoan garaile, eta guztietan oso alde estuarekin. Independentisten akuilu nagusia izan arren, Glasgowk ere ez zuen balio izan balantzari buelta emateko: 25.000 botoren arnasa eman zion, baina apenas izan zuen eraginik argazki orokorrean. Artean Edinburgoko emaitzak argitaratu gabe zeudela, ia 200.000 botoren aldea ateratzen zion ezezkoak baiezkoari nazio mailan.

Inglistongo kontaketa aretoan aurpegi luzeak ikus zitezkeen. «Ezezkoa ateratzen bada, etsigarri samarra izango da guretzat», aitortu zuen Nicola Sturgeon lehen ministrordeak Glasgowtik: «Mezua gaizki iritsi da. Botoa, nolanahi ere, ez da hartu behar *statu quo*-aren berrespen gisa. Aldaketarako eskaera da».

### Ezezko argia

Denera, ia 384.000 boto gehiago lortu ditu ezezkoak. *Yes*-ak lau barrutitan baino ez du irabazi, eta horietan ere, espero baino alde txikiagoarekin. Glasgown parte hartzea %75 izan da –batez bestekoa baino hamar puntu gutxiago–, eta horietatik %53k bozkatu zuten baietz. Dundeen aise samar irabazi zuen baiezkoak, baina gainerako hiri eta eskualde nagusietan ez zuen lortu esperotako emaitzarik. Kolpe latzenetakoa, Aberdeenshire eskualdean: independentzia aise gailentzea espero zuten, baina *Bai* aukerak botoen %40 baino ez zituen bildu.

Parte hartzea inoizko handiena izan da: %97 zeuden izena emanda, eta haietatik %86k eman dute botoa. Berehala onartu du emaitza Salmondek: «Erreferendum hau adostutako prozesua izan da, eta gehiengoak erabaki du orain ez bihurtzea herrialde independentea». Alderdi unionistei, berriz, eskatu die kanpainan «berandu» emandako hitza lehen bailehen betetzeko: «Epe batzuk zehaztuko zituztela agindu zigu

ten, eta hori ez dute nahi independentziaren alde bozkatu duten 1,6 milioi eskoziarrek soilik; erreferendumean parte hartu duten guztiek eskatu dute».

Orain Londresek du, berriro, hitza. Downing Streetetik irribartsu mintzatu da David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroa. «SNPk erreferenduma abiatu zuenean, blokea genezakeen, eta alde batera utzi. Baina, beste edozein gai garrantzitsurekin egiten dugun bezala, erabaki bat hartzea zen egokiena. Sutsuki sinesten dut Erresuma Batuan, baina demokrata ere banaiz, eta zuzena izan da eskoziarrei hitza ematea». Orain eztabaida «belaunaldi baterako» ebatzita dago, «edo, Salmondek esan zuen gisan, beharbada bizitza osorako».

Hurrengo legegintzaldian Erresuma Batuko Parlamentuak Eskoziari botere gehiago emateko promesa beteko duela agindu du Cameronek: «Eskoziarako baldintza berriak negoziatzea adostu dugu hiru alderdi nagusiok, baina baita Ingalaterra, Gales eta Ipar Irlandarako ere, Erresuma Batuko herritar bakoitzarentzat».

### Isiltasuna kalean

Ohi bezain lauso eta hotz esnatu da Edinburgo erreferendumaren biharamunean, baina ohi baino isilago. Bezperara arte nekaezin jardundako kanpainen arrastorik ezin zitekeen antzeman kalean; *Yes Scotland*-en egoitzan, jendea burumakur. Baiezkoaren alde bozkatu dutenek ez dute komentariorik egin nahi. «Ez dut uste inor pozik dagoenik», dio kafetegi turkiar bateko zerbitzariak. Hark baietz bozkatu zuen ostegunean: «Zalantzaren aurrean, hobe independente».

Unionistak, berriz, armairutik irten dira. «Lasaitu ederra hartu dugu», diote Aileen eta Malcom Collins senar-emazteek. Hasieratik zuten garbi independentziaren aurka bozkatuko zutela, baina ez Londresek edo alderdiren batek egindako promesengatik: «Ez daukagu fede handirik politikariengan, ez hemengo eta ez hangoengan. Londreskoak ustel hutsak dira. Baina baiezkoaren aldeko kanpainak galdera gehiegi utzi zituen erantzun gabe». Erreferendumak kalte baino ez duela egin uste dute: «Ez duzu sumatzen gaur denak askoz isilago daudela? Inork ez du gaiari buruz hitz egin nahi: gizartea polarizatu du. Baiezkoaren aldekoek zarata handia sortu zuten, baina gero, botoa emateko orduan, errealitatea azaleratu da: jende gehienak ez du nahi independentzia».




**Ezetzaren aldekoak, garaipena ospatzen.** ANDY RAIN / EFE

SOSLAIA



## Alex Salmond. Galdera bakarrari atxikia

**B. Velte** *Edinburgo*

Alex Salmonden agintea, ezinbestean, 2014ko erreferendumarekin lotuta egongo da betirako. Hura antolatzeko promesarekin heldu zen gobernura, 2007an, eta, gehiengo osoa eskuratu bezain pronto, agintaldiko lehentasun bihurtu zuen. Orain, Eskoziako Estatua lortzeko asmoak huts egin dionean, berak ere onartu du mandatua bukatu zaiola, eta kargua beste baten esku utzi du; ziurrenik, Nicola Sturgeon lehen ministrordeak hartuko dio lekukoa.

Azken 25 urteotan, SNP Eskoziako Alderdi Nazionalaren aurpegia izan da Salmond (Linlithgow, 1954). Alderdian sartu zenetik (1973), ingurukoak konbentzitzen jardun du nekaezin. Garai hartan SNPk eragin politiko eskasa zeukan, eta hasi berria zen Erresuma Batuko Parlamentuan finkatzen. Eskoziako nazionalisten artean hazten ari zen independentziarako nahia, baina hura lortzeko bideek gatazka handia eragiten zuten. 1979ko erreferendumak agerian utzi zuen banaketa: *gradualistek* —tartean zuzendaritza— urratsez urrats joan nahi zuten, lehenbizi parlamentua ezarrita; *fundamentalistek* eredu sozialista batean oinarritutako independentzia lortu nahi zuten. Gatazka haren ondorioz, epe labur batez alderditik kanporatu zituzten *1979 taldekook*, tartean Salmond gaztea.

1990eko hamarkadan SNPko presidente izendatu zuten, eta, Eskoziako legebiltzarra ezarri zutenetik, eserlekua izan du han. Urte luzez oposizioan jardun ostean, 2007an SNPk lortu zuen boto gehien. «Zurrumurru bat iritsi zait», esan zuen Salmondek jendaurrean: «Esaten dute hauteskundeak irabazi ditugula». Eskoziako hauteskunde sistemarekin, ordea, zaila da gehiengo osoa lortzea; horregatik, lau urtez gutxiengoan gobernatu zuen SNPk. 2011n ailegatu zitzaion Salmondi desiratutako saria: bere alderdiak laboristei hainbat boto ebatsi, eta gehiengo osoa eskuratu zuen. Handik urtebetera, Edinburgoko Hitzarmena sinatu zuen David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroarekin, eta ordutik kanpaina independentistan jarri ditu indarrak. Ibilbidea burumakur baina duin amaitu du: onartu du eskoziar guztiek ez diotela bere ametsari jarraitu nahi. Baina gustura doa lortutakoarekin: duela gutxi bere buruarengan sinesten ez zuen herrian, %45ek independentzia babestu dute.



EDINBURGOKO KRONIKAK
Martxelo Otamendi

# Wallaceren malkoak

Osteguneko erreferendumak badauka lehen biktima: Alex Salmond lehen ministro Eskoziakoak dimisioa iragarri du, erreferendumaren emaitza txarraren ondorioz. Horrelakoetan gertatu ohi denez, Salmond izan da kanpainako figura nagusia, zentralitatea hartu duena eta historian arrastoa utziko duena. Garaipena denona izango zen, baina porrota harena bakarrik izango da. Dimisio horrek azkarregi hartutako erabakia ematen du, areagotu lezake porrotaren sentsazioa independentziaren aldekoen artean; prozesua, herritarrena izan bada ere, Salmondek lideratu duelako. Katalunian ez bezala, Eskozian gizarte zibilak ez du Salmond behartu independentzia eskatzera.

Azkenean, oso justu, baina ondo atera zaio apustua Erresuma Batuko lehen ministro David Cameroni. Izerdia bota du aste hauetan, duela urte pare bat Salmond buruzagi eskoziarrak botatako erreferendum erronkari eutsi zionean espero zuena baino gehiago.

Eskoziako lehen ministro Salmondek berak ere sorpresa hartu zuen independentziazaleen kopurua egunez egun hazten ikusten zuenean. Horregatik proposatu zion Londresko agintari nagusi Cameroni hiru galderako erreferenduma egitea: lehenean, orain arte bezala segitzea; bigarrengoan, autogobernua asko igotzea; eta, hirugarrenean, independentzia.

Salmondek orduan bazekien, edo aurreikusten zuen, independentzia BAI-EZ aukera proposatuz gero emaitza txarra izango zela independentziarentzat, inkestek harrera eskasa ematen ziotelako bereizteko aukerari. Horregatik asmatu zuen hiruko sistema; autogobernu gehiago eta independentzia batuz gero erraz irabaziko ziotelako orain arte bezala geratzeko aukerari. Baina Cameronek aise igarri zion Salmondi ezkutuko asmoa: bi boteen estrategia. Lehen botean independentziak galtzea, baina autogobernu handiago aukera hazaraziz; eta, bigarren botean, bost edo hamar urte pasatutakoan, bigarren erreferenduma egitea independentzia BAI-EZ aukera bakartzat eskainita, seguru egonda lehen erreferendumean autogobernu handiagoari baiezkoa eman ziotenetako askok independentziaren alde bozkatuko zutela bigarren erreferendumean.

Cameronek ez zion utzi hirukoa, eta independentzia BAI-EZ adostu zuten. Biak ala biak seguru zeuden orduan, eta gero ere bai, independentziak emaitza txarrak aterako zituela. Haiu zegoen Cameron seguru horretaz, onartu zuela bozkatzeko adina 16 urtera jaistea, jakinda gazteen multzo horren zati handi batek independentziaren alde egingo zuela.

Independentzia agendan ez dagoenean egiten diren inkestek une horretako egoera neurtzen dute; baina ez agendaren aldaketak ekar lezakeen iritziaren proiekzioa. «Duela hiru urte %25 baino ez zeuden independentziaren alde», esaten entzun dugu urteotan, Katalunian eta Eskozian oso epe laburrean izan diren aldaketei azalpena bilatu nahian.

Zer gertatu da osteguneko bozketan? Adinduek ezezkoaren alde eman dutela botoa, erretiroaren sariaren etorkizunarekin kezkatuta, eta Glasgowko langile auzoetakoak, botoa eman gabe hogei urte zeramatenak, bozkatzera joan direla, baina ez independentziaren alde; ez behintzat espero zen neurrian. 25.000 boto alde txikia baita Glasgown, baiezkoaren aldekoen ustezko gune seguruan. Gazteen artean baiezkoak eduki duen arrakastak leihoak zabaltzen dizkio etorkizunari.

«Gaur Eskozian ari duena ez da euria; Wallaceren malkoak dira», mezua jaso dut gaur goizean sakelakoan. Baina pena malkoak edo poz malkoak dira? William Wallace pozik egongo da bere ondorengoek Eskozia ekarri duten lekuraino ekartzeagatik: %44,7.

**Eskozia**
I-18: Independentziari buruzko erreferenduma

# Gordon Brown: «Londresek bete egingo du Eskoziari emandako hitza»

Londresko hiru alderdi nagusiek bihar aurkeztu asmo dute lege proposamen bat Komunen Ganberan • Urtarrilerako prest eduki nahi dute Eskoziaren eskumenak zehazten dituen legea

**Samara Velte** *Edinburgo*
*Berriemaile berezia*

Erresuma Batuko alderdi nagusietako buruek aurki hasiko dituzte Eskoziari eskumen gehiago emateko prozedurak. Hala jakinarazi du Gordon Brown lehen ministro ohi laboristak Eskozia ekialdera egin duen bisitan. David Cameron lehen ministroak, Ed Milliband oposizioko buruak eta Nick Clegg liberal-demokratak ebazpen bat sinatu dute, *Scotland Act*, Eskoziaren eskumenak zehazten dituen legea, urtarrilerako berritzeko. Agiriak, oraingoz, epemugak zehazteko eskatzen du.

Brownen arabera, bihar bertan eramango dute proposamena Komunen Ganberara. Funtzionarioak lanean ari dira epemuga horiek zehazteko, eta urriaren erdialdean emango dute xehetasunen berri. «Orain arte, mundua guri begira egon da, baina orain Erresuma Batuko alderdi nagusietako buruzagietan dago arreta», azaldu du Brownek.

Lehen ministro ohia Eskoziaren independentziaren aurkako *Better Together* kanpainaren aurpegi ezagunenetako bat izan da azken hilabeteotan. Osteguneko erreferendumean, Erresuma Batuan jarraitzearen aldeko aukera nagusitu zen, botoen %55 lortuta, eta Londresko alderdiek kanpainan emandako hitza beteko dutela iragarri zuten.

«Ziurtatzen dizuet joan den astean egindako promesak beteko direla», esan du Brownek. «Hitza jaten ez duten gizonak dira hauek, eta ni arduratuko naiz hura bete dezaten». Urriaren 30erako aurkeztu nahi dituzte parlamentuan hiru alderdien proposamenak, gero «Eskoziako herritarrekin eta parlamentuarekin kontsultatzeko» asmoz. Akordio nagusiak azarorako lortu nahi dituzte, eta *Scotland Act* berria urte hasierarako prest eduki.

Cameronek nahiago luke Eskoziarentzako eskumenak Erresuma Batuko gainerako herrialdeentzako botereekin batera sartuko balira indarrean. Asmo hori adierazi zuen ostiralean, erreferendumaren emaitza jakin bezain pronto. Alderdi Laboristak, baina, aditzera eman du ez duela onartuko halakorik proposatzen duen legerik; Millibanden ustez, banatu egin behar lirateke Eskoziaren *devolution* sistema eta Ingalaterrarena. Eskoziako erreferendumak Erresuma Batuko sistema parlamentarioari buruzko galdera ugari piztu ditu; besteak beste, nola saihestu daitekeen ingelesak ez diren diputatuek Ingalaterrari bakarrik eragiten dioten gaiei buruz erabakitzea. Hori, nolanahi ere, laboristen interesen aurkakoa da, *tory*-ek baino askoz eragin gutxiago baitaukate Ingalaterran.



**Irudia** • Glasgow

## Eskuin muturreko unionistak, istilu bila

Erreferendumaren osteko egunak, oro har, lasaiak izaten ari dira Eskoziako leku gehienetan. Glasgown, ordea, unionista batzuk kalera atera ziren ostiral gauean, tartean eskuin muturreko hainbat kide. Kanta loialistak abestuz, independentziaren aurkako leloak oihukatuz eta Erresuma Batuko banderak astinduz hartu zuten St. George plaza. Talde independentistek handik ateratzeko eskatu zieten baietz bozkatu zutenei; eta, azkenean, Poliziak inguratu zituen unionistak. Atzo martxa unionista gehiago zeuden deituta. ROBERT PERRY / EFE

### Alderdiak, toki berri bila

Arreta gunea Londresera igaro da egun gutxitan, baina Eskozian ere erreferendum osteko egoerarekin borrokan dabiltza alderdiak. Alex Salmondek lehen ministro kargua eta alderdiko buruzagitza uztea erabaki duenetik, haren lekua betetzeko hautagai bila dabil SNP Eskoziako Alderdi Nazionala. Oraingoz, Nicola Sturgeon lehen ministrordeak du horretarako aukera gehien. Atzo Interneteko sare sozialetan jakinarazi zuenez, azken orduotan 4.000 lagun baino gehiago sartu dira alderdian: «Asko, laboristak izandakoak; eta beste asko, sekula politikan ibili gabeak».

**Erreferenduma galdu arren, milaka kide berri lortu dituzte azken egunotan SNPk eta Alderdi Berdeak**

Erreferenduma galtzeak ez ditu, antza, alderdi independentistak ahuldu. Berdeek ere xurgatu dituzte erreferendumean *Yes Scotland* ekin bat egin duten ekintzaileetako zenbait; erreferendumaren emaitza jakinarazi zutenetik, 1.200 kide berri lortu ditu alderdiak.

Ezkerreko herri mugimenduetatik gertuago dagoen RIC Independentzia Erradikalaren Aldeko Kanpainak ere abiatu du bere egitasmoa hemendik aurrerako. Asko *The 45%* (%45ak) izena erabiltzen hasi dira erreferendumerako elkartutako taldeei buruz hitz egiteko. RICek konferentzia nazionalera deitu du azaro amaierarako; ordu gutxian, 4.000 lagunek baino gehiagok adierazi dute biltzar horretan parte hartzeko asmoa.

ANALISIA
Samara Velte



# 'No, thanks'

Horren erraz hautsi liteke historiaren une gorenetakoa izan behar zuena. Ez soilik Eskoziarena; baita haren bideari jarraitu asmo zioten estaturik gabeko nazioena ere. Ziurrenik, hainbat eskoziar baino gogotsuago zeuden euskal herritar eta katalan asko baiezkoak irabaz zezan; ez horrek zuzenean beraiei eragingo liekeelako, baizik eta jokoan zegoena, maila sinbolikoan bada ere, asko zelako. Erreferente bat sor zezakeen, bide berriak zabaldu, eta —behingoz ere— Madrili blokeorako argudioak ebatsi.

Bazeuden hori pentsatzeko arrazoiak: kalean presentzia zabala zeukan Yes-ak, eta logikoa zirudien pentsatzea izena eman zuten boto-emaile berri guztiak langile klaseko independentistak izango zirela. Askok sorpresa ikusi nahi zuten, pentsatuz era bakitzeko aukera izateak soilik bultzatuko zituela eskoziarrak independentzia aukeratzera. Sekula erabakitzeko aukerarik izan ez duenaren ajeak. Eskoziarrentzat, estatu independente batek ez du zerikusi handirik nazio gisa jasotzen duten aitorpenarekin; ez dute halakorik behar euren existentzia justifikatzeko. Gehienen kasuan, ez dago erraietan sentitzen duten gai bati lotuta; jatorriari eta historiari lotutako argudioek pisua galdu dute, eta bertako hizkuntzei buruzko kezkak ere aspaldi egin zuten irrist nazionalisten lehentasun zerrendaren amaierara.

Horregatik dira gai independentziari buruz hain era arrazionalean pentsatzeko; horregatik izan dira hain garrantzitsuak kanpainetan emandako argudioak. Aseguru enpresa batek eskaintzen dituen baldintzak irakurri eta «No, thanks; nahiago ditut bestearenak» erabakitzen den antzera aditu dituzte eskoziar askok alde bateko eta besteko argudioak, eta ezer galtzen utzi izanaren penarik gabe erabaki dute ezetz.

Paradoxikoa irudi lezake: eskoziarrak burujabe izan dira egun batez, eta aurrerantzean ez izatea erabaki dute. Orain Londresek du, berriro, hitza. Ikusteko dago kanpaina amaierako maitasun deklarazioei eutsiko dien, eta hitzemandako botereak ailegatuko diren, edo Eskoziako auzia ebatzita, arreta Ingalaterrako arazoetan eta murrizketa politiketan ipiniko duen berriro.

Erreferendumarekin hasi den garai berri honetan, ezinbestekoa izango da eskoziarrentzat Londresko gobernu kontserbadoreari presio egitea, emandako hitza bete dezan. Alex Salmond lehen ministroak itsasontzitik salto egin du hura berekin batera hondoratu baino lehenago. «Orain prozesua beste norbaitek eramatea komeni da, baina bideak jarraitu egin behar du». Independentziaren aldeko kanpainen lorpen handiena ez baita ostegunreko %45a: bi aldeetako kanpainek erakutsi dutenez, boto emaileen kopurua aise igo edo jaitsi daiteke beste hamaika faktoreren arabera. Lorpena kanpainotan mobilizatu duten jendea izan da. Galdera bakar batek martxan jarri ditu politikarekin harremanik ez zeukaten asko, batez ere gazteen artean. Prozesu horretan sortu den indarrari eusten badiote, eragin handiko aktore bihur daitezke Eskoziako paisaia politiko berrian. Itxura du haietako askok Alderdi Berdean topatuko dutela aterpea, baina baliteke herri mugimendutik gertuago dauden taldeak euren aldetik antolatzea. Hemendik aurrera, hori izango da gakoa: herritarrek boto-emaile soil izateari utzi eta eragile politiko bihurtzen direnean izango da Eskozia berriz burujabea.

> ***Paradoxikoa irudi lezake: eskoziarrak burujabe izan dira egun batez, eta aurrerantzean ez izatea erabaki dute. Orain, Londresek du, berriro, hitza.***

# Noiz sinatuko zain

**Espainiako Gobernuak Kataluniako galdeketaren aurkako makineria martxan jartzeko, Masek kontsultaren dekretua sinatu behar du**

**Adrian Garcia**

Artur Mas Kataluniako presidenteak kontsultaren dekretua noiz sinatuko zain dago Espainiako Gobernua. Legea Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin batera martxan jarriko baitu Madrilek azaroaren 9an egitekoak diren herri galdeketa debekatzeko lege makineria. Gobernuak dena prest du asteburuan bertan Masek legea argitaratzen badu Aldizkari Ofizialaren ezohiko argitalpen batean. Hori gertatuz gero, ministro kontseilura deituko luke Mariano Rajoy Espainiako presidenteak, Auzitegi Konstituzionalean helegitea lehenbailehen jartzeko.



**Artur Mas aurtengo Diada eguneko prentsaurrekoan.** ALBERT OLIVE / EFE

Baina Masek denborarekin jokatzeko aukera du. Joana Ortega Generalitateko presidenteordeak herenegun parlamentuak kontsulten legea onartu zuenean esan zuen «hurrengo orduetan edo egunetan» sinatuko zuela Masek dekretua. Nahiz eta parlamentuak legea onartu, argitaratzen den arte ez da indarrean sartzen, eta, beraz, auzitegiek ezin dute jardun. Masek hurrengo asterako uzten badu argitalpena, Rajoy presidentea Txinara egitekoa den bidaia ofizialean bete-betean harrapatuko du.

Edonola ere, Masek kontsulta legearen argitalpena atzeratu eta Madrilen planak aldrebestu arren, behin erabakitzeko eskubidearen aurkako neurriak abiatzean emaitza ez da aldatuko: Auzitegi Konstituzionalak helegitea onartuko du, eta, ondorioz, kontsulta legea baliogabetuko du, erreferendumaren deialdia legez kanpo utziz.

Auzitegien erantzunaren esperoan, kontsultaren aldeko alderdien artean desadostasuna da nagusi debekuari nola aurre egitearen inguruan. ERCko idazkari nagusi Marta Rovirak esan du ez dutela desobedientzia zibilaren alde egingo. «Ezin esan dezakegu desobedientzia zibila egingo dugula, hitz horiek hainbat lagunengan eragina izan baitezakete».

Roviraren hitzak harrabots handia sortu dute sare sozialetan, eta adierazpenok argitu egin behar izan ditu. «Beharrezkoa denean desobedituko dugu. Azaroaren 9an demokratikoki bozkatuko dugu. Gertatzen dena gertatzen dela», adierazi du Twitter bidez.

CDCko Merce Conesak, ordea, baztertu egin du desobedientziaren hautua, nazioarteari begira islatuko den irudia «kaltegarria» izan daitekeelakoan. Kontrara, CUPentzat «bide bakarra» da Espainiako auzitegien aginduei muzin egitea. Parlamentuan desobedientzia zibilaren alde bozkatu zuten bakarrak izan ziren.



# «Bozketa galdu arren, espektatiba guztiak onak dira SNPrentzat»

**Robert Liñeira** • Edinburgoko Unibertsitateko politologoa

Eskoziako erreferenduma igarota, arretagunea Londresera igaro da berehala. Erresuma Batuko alderdiak datorren urteko bozetara begira daude, eta, zjurrenik, horrek baldintzatuko ditu datozen urratsak.


BERRIA

**Samara Velte**

Pare bat urteotan, Eskoziako Aldaketa Konstituzionalerako Zentroa (SCCC) aritu da iritzi publikoa ikertzen eta herritarren zalantzak argitzen. Edinburgoko Unibertsitateko ikerketa talde horren partaidea da Robert Liñeira (Bartzelona, 1979): «Herritarren galderei erantzunak ematen ahalegindu gara, erantzun tekniko bat posible zenean, bederen; sarritan, erantzunak politikoak ziren soil-soilik».

**Espero zenuen emaitza?**

Ez geneukan aurrekaririk, eta, beraz, tentuz ibili beharra geneukan inkestek ziotenarekin, baina bistan da: ezezkoak zeuzkan aukera gehien. Ehun inkestatik bik baino ez zuten iplni baiezkoa aurretik. Galdera zen ea ikerketa horietan erabilitako laginak egokiak ote ziren: esate baterako, gerta zitekeen «ez dakit» erantzuten zutenek gehiago jotzea alde batera, bestera baino; edo, kanpaina independentistak zioen moduan, gerta zitekeen laginok ez izatea errepresentatiboak.

Emaitzak atera direnean, ikusi dugu azken orduko bultzada bat jaso duela ezezkoak. Zalantzatiak ez zeuden proportzionalki banatuta; gehiago jo dute ezezkora. Hori nahiko arrunta izaten da halako prozesu konstituzionaletan: aldaketa bat proposatzen diezunean, askok nahiago izaten dute *ezagun txarra*. Aldiz, ez da gertatu baiezkoaren kanpainak zioena: egia da parte hartze handia izan dela; baina, hain zuzen ere, baiezkoak irabazi duen lekuetan izan da apalena.

**Kanpainek eragin handia izan dute bozketan?**

Kanpainak garrantzitsuak dira erreferendumetan. Baiezkoaren aldekoek, beharbada, porrot egin dutela usteko dute, inkestek emaitza hobeak iragartzen zizkietelako. Baina, perspektibatik begiratzen baduzu, %45 oso emaitza ona da: inkestek duela hilabete batzuk ziotena baino askoz handiagoa da, eta hori kanpainaren lorpena izan da. Telebistako bigarren eztabaidan, ordezkari unionistak gai bakarrari buruz hitz egin zuen: dibisa batasunik ez egoteak ekar litzakeen arriskuez. Negoziatzeko jarrera baino gehiago, hauteskunde estrategia bat izateko itxura eman zuen, eta horrek jendea uxatu zuen. Hortik aurrera, oso marjina estuetan ibili gara, eta baliteke gertakari txikiagoek eragin izana; esate baterako, Gordon Brown agertzea. Argi dago halako kanpainetan, batez ere lehenengo aldiz egiten diren erreferendumetan, asko axola duela proposatzen den proiektuak

**«Halako kanpainetan, batez ere lehenbiziko aldiz egiten diren erreferendumetan, asko axola du proiektuak»**

**«Eskozia ez da garrantzitsua datozen hauteskundeetarako; edo hala uste du, behintzat, Alderdi Kontserbadoreak»**

**Bat-batean, arretagunea ez dago Eskozian, Ingalaterran baizik. Zergatik agindu ditu Cameronek botere gehiago Erresuma Batuko nazio guztientzat?**

Maiatzean hauteskunde orokorrak dituztelako Erresuma Batuan. Alderdi Kontserbadoreko hainbat diputatu ez daude batere gustura gobernuak eskoziarrei egin dizkien ustezko «kontzesioekin» erreferenduma irabaztearren. Izan ere, datorren urtean UKIP [Erresuma Batuaren Independentziaren Alderdia] ere sartuko da jokoan; orain arte isildutako nazionalismo ingelesaren bandera darabil, eta *tory* askok arriskuan ikusten dute euren eserlekua. Ez zuzenean UKIP'ek ken diezaiekeelako; bai, ordea, aski boto lortu ez eta azkenean laboristen eskuetara igaro daiteke elako.

**Erresuma Batuko Alderdi Laboristak ez du sinatu nahi Cameronen deboluzio proposamena.**

Aurrera aterako balitz, soilik diputatu ingelesek bozkatu ahal izango lukete Ingalaterrari dagozkion hainbat gairen inguruan, eta tartean legoke osasuna. Laboristen kanpainako proiektu handia osasun sistema erreformatzea da, baina ez daukate aski diputatu Ingalaterran, eta Eskoziakoek ez diete balio. Gai hori tokiko parlamentu bakoitzaren konpetentzia balitz, Ed Milliband gehiengorik gabe geratuko litzateke bere kanpainako promesa handirako.

**Eskoziaz ahaztuko dira?**

Kontserbadoreek 59 diputatutik bakarra dute Eskozian; galdutzat daukate. Ingalaterran jokatuko dituzte hauteskundeak, han bizi baita Erresuma Batuko herritarren gehiengoa. Horregatik sartu da *auzi ingelesa* jokoan; epe oso laburreko faktoreek erabakitzen dutelako alderdien jokabidea. Nahiko kontu bitxia da, azken batean, eskoziarren %45ek bozkatu dute independentziaren alde, eta badago kontuan hartu beharreko eskari konstituzional bat. Baina Eskozia ez da garrantzitsua hurrengo hauteskundeetarako; edo hala uste du, behintzat, Alderdi Kontserbadoreak.

**Zein presio senti dezake Cameronek?**

Erreferendumak epe luze samar baterako itxi behar zuen Independentziaren auzia; hori [Alex] Salmondek berak ere onartu zuen. Dena den, alderdi unionistek ez badute emandako hitza betetzen, zabaldu liteke espero baino lehenago. Eskoziar gehienek hiru aukerako erreferenduma nahi zuten, botopaperetan botere gehiagorako formula ere ager zedin, baina ez zieten eskaini. Ezezko botoarekin lortu dute horretarako promesa; ez dago oso garbi zein konpetentzia izango diren -alderdi britainiarrak ez direlako ados jartzen , baina, eskoziarrek sentitzen badute ez dutela hitza betetzen, iritzi publikoak eta SNPk arrazoiak dituzte bandera berriz altxatzeko.

**Zer gertatuko dela uste duzu?**

Ezinezkoa da jakitea, hauteskundeen eremuan gabiltzalako. Zaila iruditzen zait Cameronek proposatutako egutegia betetzea; edozein proposamenek bi parlamentuen onarpena jaso beharko du, eta hori nekez gertatuko da maiatza baino lehen. Alderdiek egiten duten eskaintzaren eta, jakina, hauteskundeetako emaitzaren araberakoa izango da.

**Zer dute irabazteko Eskoziako alderdiek?**

Independentistek erreferenduma galdu dute, baina, paradoxikoa dirudien arren, ez dira galtzaile handienak. Asteotan jende asko ari da SNPn izena ematen, eta alderdiko buru berria, Nicola Sturgeon, oso pertsonaia estimatua da. Erreferendumetik analisi positiboa egin dezake SNPk: auziari buruzko galdeketa bat antolatu du galdu arren–, eta ezezkoaren aldekoek botere gehiago agintzea lortu du, jakinik hori dela eskoziar gehienek nahi zutena. Hitza betetzen badute, erreferendumari esker izango da. Eta ez badute betetzen, baliteke partida hau hamar urteren buruan berriro jokatzea. Nire ustez, perspektiba guztiak onak dira SNPrentzat.

**Zer gertatuko da kanpainan sortu diren mugimenduekin? Alderdi berriak sor litezke haietatik?**

Ez dut uste. SNPk urte dezente daramatza gobernuan [2007tik], baina ez dauka inolako desgasterik. Horrenbestez, ez dago alderdi berriak sortzea ahalbidetzen duen egiturarik. Gerta daiteke alderdiotako militantzia gaztetzea –batez ere SNPren eta Berdeen kasuan, haiek baitira kide berri gehien lortzen ari direnak–, baina hori ona da alderdiontzat.

Beste kontu bat da herritarrak frustratuta sentitzen hastea hemendik denboraldi batera, ikusten dutelako mobilizazio hau hutsean geratu dela eta betiko alderdikerietara itzultzen ari garela. Baina frustrazio hori ez dute eragingo alderdi independentistek; azken batean, galdu egin dute erreferenduma, eta ez daukate hitza betetzeko presiorik.